


2007/08
IKASTURTEA

Herri Ametsa Ikastolako ELKARBIZITZA PROIEKTUA

K E I
Kalitate Egitasmo Integratua



Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28
Donostia
Tfn-943 393520

H herriam@ikastola.net
H www.herriametsa.com





ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net
www.herriametsa.com



AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. IKASTOLAREN IDENTITATE PRINTZIPIOAK	4
3. HEZKUNTZA PROIEKTUKO BALORE SOZIAL ETA ETIKO NAGUSIAK	7
4. ELKARBIZITZAREN DEFINIZIOA	8
5. EGOERAREN DIAGNOSIA	11
6. ILDO NAGUSIAK ETA HELBURUAK	15
7. BALIOEN DEFINIZIOA	18
8. IKASTOLARAKO PLANGINTZA PROPOSAMENA. TUTORETZA PLANA	24
9. III. EREMUARI DAGOKION IKASTURTEKO PLANGINTZA	27
10. OHIKO DIZIPLINA ARAUHAUSTEAK	31
11. GATAZKEN TRATAERA	34
11.1.- Gatazken kontzeptuaren definizioa	34
11.2.- Gatazken analisia eta ebazpenerako urratsak	36
11.3.- Gatazkari nola aurre egin	38
12. BERDINEN ARTEKO TRATU TXARREN AURREAN JARDUTEKO GIDA	41
13. ERANSKINAK	48
13.1. Barne Araudia: 3.2.5. Elkarbizitza Taldea	48
13.2. Barne Araudia: 7. Elkarbizitza	50



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



1.- SARRERA

Elkarbizitza Proiektu honen xedea, Ikastola oinarrizko eskubideak, askatasuna eta bizikidetzaren printzipio nagusiak garatzeko tresna eraginkor batenjabe izatea da, partaide guztien eta bereziki ikaskideen harremanak eta baita ikasketa prozesua hobetu nahian ere.

Gure Ikastolako oinarrizko funtzionamendu eta elkarbizitzarako arauak eta hezkuntza komunitateko partaide guztien eskubideak eta betebeharrak Barne Araudian jasoak daude eta estamentu guztien artean adostuak.

Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan oinarritua eta txertatua egongo den Elkarbizitza Proiektu hau osatzeko prozesuak, KEI-ko III. EREMUKo Hobekuntza Proiektuan du hasiera; horretarako, Ikastolen Elkarteko kalitate programa aurrera daramaten arduradunen gidaritzapean.

Dokumentu honen gauzatzea KEI III. Eremuko lan-taldeak hartuko du bere gain, beti ere, Orientazio Departamenduarekin elkarlanean. Bertan, eguneroko bizikidetzaren azterketa egingo da sektore desberdinetan eta proposamenak Ikastolako estamentu eta organo desberdinetara (Klaustroa, Zuzendaritza Batzordea, Kontseilu errektorea, Orientazio Derpartamendua..) bideratuko dira eztabaidatuak eta adostuak izan daitezen.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



2.- IKASTOLAREN IDENTITATE PRINTZIPIOAK

Elkarbizitza Proiektu hau osatzeko, **Hezkuntza Proiektua** eta **Barne Araudia** hartu ditugu **Errefentzia Marko** gisa. Honela, gure printzipioetan oinarritutako Proiektu koherente bat sortuz.

HERRI AMETSA Ikastolako Hezkuntza Proiektuan gure IZAERA definitzerakoan, honako FUNTSEZKO ezaugarri hauek agertzen dira:

- Erakunde plurala da ikastola, Euskal Herrian dauden ideia, portaera sozial, politiko, filosofiko eta erlijioso ezberdinen elkarbizitzarekiko errespetu osoarekin.
- Inolako diskriminaziorik gabe, maila kultural, sozial, ekonomiko, sexu eta arraza desberdinetako gizakiei zabalik, aukera berdinak eskainiko dizkien eskola konpentsatzailea izango da ikastola.
- Ikastolaren xedea hauxe da: Heziketa bukatutakoan, geure Curriculumaren ildoaren arabera, ikasleak gazte eskaldunak izatea, arduratsuak, autonomoak, kritikoak, solidarioak, demokratikoak, parte-hartzaileak eta kulturaz ongi jantziak.

HERRI AMETSA Ikastolaren IDENTITATE PRINTZIPIOAK atalean berriz, honako hauek jaso ditzakegu:



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



- **Euskara eta Euskalduntasuna** (H P 4.1)
- **Balore etikoak, gizartekoitasuna eta balore sozialen arloa**
(HP 4.2.3)

Azken printzipio honen helburua Ikastolan nahiz kanpoan ikaslea askatasunez eta zuzentasunez hezi eta egoki gizarteratzeko giro eta bitartekoak eskaintzea da.

Hori dela eta, Herri Ametsa Ikastola ondoko hauetan saiatzen da:

- Ikaskide, irakasle, zaintzaile, monitore, guraso eta lagunarteko nahiz beste edozeinekiko balioak (laguntasuna, errespetua, tolerantzia eta egiazaletasuna) aintzakotzat hartu eta elkarbizitzan lotzen.
- Intsolidaritate, zapalkuntza, biolentzia, injustizia eta beste hainbat balioekiko kritiko izaten.
- Norberak duen askatasun eskubidearen aurrean, norbanakoa mugatzen jakin, eta, era berean, inguruko ororen askatasunarekiko jokabide arduratsuak lantzen.
- Kontzientzia askatasuna oinarritzko eskubidetzat hartuz, joera politiko anitzak onartuz, elkarri ideia politikoak agertzeko eta errespetuz defendatzeko eskubidea bermatzen. Joera politikoak ezezik, erlijioen gaia ere pluralismo printzipioaren arabera egituratzen.
- Jokabide konpetitiboak ahal den mailan ahulduz, elkar laguntzan hezi eta bizikidetzak baketsurako bidea jorratzen.
- Neska eta mutilak eskubide eta baldintza berberetara ohitu eta elkarren arteko errespetu jarrerak ziurtatzen.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



- o Gizarte aldakor honetan sortzen diren balio berrien aurrean, hausnarketa irekia eta kritikoa sustatzen, jarrera baikorrak bultzatzeko.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



3.- HEZKUNTZA PROIEKTUKO BALORE SOZIAL ETA ETIKO NAGUSIAK

- Solidaritatea (H P 5.2.2.1)
- Tolerantzia, elkarren errespetua, elkarrizketarako joera
(H P 5.2.2.2)
- Askatasuna, Erantzukizuna (H P 5.2.2.3)
- Alaitasuna eta Esperantza(H P 5.2.2.4)
- Egiazaletasuna (H P 5.2.2.5)
- Neurriko laztasuna edo austeritatea
(H P 5.2.2.6)
- Elkarbizitza- jendetasun arauak
(H P 5.2.2.7)
- Elkarbizitza baketsua (H P 5.2.2.8)



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



4.- ELKARBIZITZAREN DEFINIZIOA

Hezkuntza elkarteak (langile, guraso eta ikasle) Hezkuntza Proiektuan definitutako balioen arabera, elkarbizitzari buruzko hausnarketa eta jarraipena egingo du, elkarbizitza hobetzeko asmoz, gatazkak konponduz nahiz saihestuz. Hori dela eta, maila desberdinetako harremanak zehaztea ezinbestekoa deritzogu.

IRAKASLEEN ARTEKO HARREMANAK

- 1.- Batek bestearen lana oztopatu gabe jardungo dute, lehiakortasunetik at, norbere lana goraiatu eta bestearena gutxietsi gabe.
- 2.- Elkarren arteko harremanak errespetuan, egiazaletasunean eta leialtasunean oinarrituak izango dira beti ere.
- 3.- Edozein irakasleri errespetatuko zaio kontzientzia askatasunerako eta berriazko ideologia eskubidea.
- 4.- Hezkuntza lanak hala eskatzen duen guztietan elkarlanean eta koordinaturik jarduteko betebeharra izango dute irakasleek.
- 5.- Sor daitezkeen edozein motatako arazoak konpontzeko jarrera irekia izatea, elkarriketarako prest agertuz.
- 6.- Irakasleak eskubidea du berari buruz beste irakasle kideek dakitena diskrezioz erabilia izan dadin, ikasle edo gurasoekin edozein gatazka saihestuz, arazoa dagokion bidetik eraman dadin.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



IKASLE ETA GURASOEN ARTEKO HARREMANA

Gurasoek, beraien seme- alabekin daukaten erlazioa, oso garrantzitsua da, heziketa egoki baten aurrean. Horretarako kontutan izan beharko dute:

- 1.- Errespetua izatea, bai gurasoak hurrekiko, nola hurrek gurasoekiko.
- 2.- Etxean, konfiantza giro bat gauzatzea harremanak giro lasai batean eman daitezen.
- 3.- Eguneroko bizitzan, garrantzitsua da komunikazio on bat izatea.
- 4.- Beti ere, ezin ahaztu gurasoek ardura bat daukatela beraien seme-alabekiko.
- 5.- Eguneroko komunikazioan, orekaz eta egiarekin jokatu behar dela.

IKASLEEN ETA IRAKASLEEN ARTEKO HARREMANAK

Gurasoek seme-alabak irakasleen eskutan uzten dituzte, gurasoekin batera, beraien heziketa osa dezaten eta horretarako honako hauek beharrezkoak izango dira:

- 1.- Elkarren arteko konfiantza bai laguntza eskatzeko garaian ikaslearen aldetik, nola irakasleen prestutasuna ikaslea laguntzeko.
- 2.- Beti errespetu giroan gauzatuko dira harremanak inori minik egitea saihestuz. Irakasleak beti sinestuko du ikaslearen garapena posible dela eta horretan etsi gabe aritu beharko du edozein aurrerapen, txikia bada ere, positiboki baloratuz.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



IKASLE-IKASLEEN ARTEKO HARREMANAK

Ikasleen arteko harremanak elkarren arteko errespetu, onarpen, onespen, elkarrekikotasun eta konfiantza osokoa behar luke, beti ere, komunikazio enpatiko batekin, hau da, norbera beste pertsonen lekuan jartzen ikasiz eta kooperazio osoz.

FAMILIA ETA IRAKASLEEN ARTEKO HARREMANAK

Gurasoak dira seme-alaben lehen eta legezko hezitzaileak eta irakasleekin batera, bakoitza bere eginkizun propioetan, ikaslearen nortasuna osatzeko lagunduko dioten giro egokia lortu behar dute.

1.- Ikaslea, gizarteko talde desberdinetan partaide izaten, sentiarazten, ahaleginduko dira. Familia, gela, lagun-talde eta herriko partaide izaten. Bestalde, ikasle batek beti aurkitu beharko luke bere adierazpenak egiteko konfiantzazko giroa guraso eta irakasleen artean.

2.- Guraso eta irakasleen harremanak heziketa- arazoetan irekiak eta orekatuak izango dira, elkar oztopatu gabe eta leialak eta egiazaleak, haurren heziketa baitago jokoan. Beraz, arrazoiketa eta elkarrizketa izango dira harremanen oinarri eta ez nagusikeriak.

3.- Guraso eta irakasleek, seme-alaben heziketari dagozkion erabakiak hartzerakoan, hauen asmoak eta iritziak hartuko dituzte kontuan, heldutasunaren arabera.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



5.- EGOERAREN DIAGNOSIA

Diagnosia egiteko, hots, hobetu beharreko arloen zergatiak edo kausak azalertzeko, erabili dugun baliabidea AMIA metodoa izan da. Honen bidez, alderdi ahulak (ahultasunak eta mehatxuak) eta alderdi sendoak (indarrak eta aukerak) zehaztu ditugu hainbat aldagaitan islatuz. Aldagai horietatik batzuk hautatu ditugu, taldeak (klastroaren oniritziarekin) adostutako zergati garrantzitsuenak, esanguratsutzat jo dituenak, alegia.

Hona hemen eratorri ditugun ONDORIOAK:

5.1.- ALDERDI SENDOAK:

5.1.1.- Barne Araudia badugu.

Erreferentzia puntua da elkarrekin lanean aritzeko. Arautegiaren indarra bere adostasun mailan dago lehenik eta behin; bestalde, jokabide edo erantzun bateratuak ahalbideratzen ditu subjektibotasunerako joerak murriztuz.

5.1.2.- Irakasle talde iraunkorra eta inplikaturik da, beti ere etsipenean erortzen ez bagara.

Irakasle talde tinkoa, inplikaturik eta aurre egin nahi duena da. Ardura asko eta asko bere gain erortzen da eta honen jabe denez,



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



inplikatuagoa sentitzen da Ikastolaren etorkizunean. Honela, gehiengo zabal batengatik esan daiteke dedikazio eta konpromiso maila handikoa dela.

5.1.3.- Balioak H.P.an definituak daude, adostasun maila handiarekin.

Ezinbesteko erreerentzia puntua da, seriotasuna eta helmuga ipintzen dizkiona gure eguneroko lanari. Lan ildoak markatzen du.

5.1.4.- Arazoak bideratzeko hainbat tresnaren jabe gara. (Orientazio Zerbitzua, Gizarte Zerbitzuak...)

Azken urteotan aipatutako baliabideak maizago eta modu egokiagoan erabili ditugu, arlo honetan sortzen diren eta sor litezkeen arazoen aurrean. Halaber, zenbait ekintza-protokolo zehaztu eta sistematizatuak ditugu, hala nola: arazo familiarren aurrean nola jokatu, laguntza gelarako eskabideak, gizarte zerbitzuekiko harremanak...

5.1.5.- Giroa ona da eta ez oldartua, bai ikasle, bai irakasle aldetik.

Eguneroko elkarbizitza ona da, ez da egoera gaiztotu gehiegirik sortu, beraz, hori kontrolpean edukitzeak egunerokoa erraztuko digu.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



5.2.- ALDERDI AHULAK .

5.2.1.- Irakasle guztiok ez ditugu balioak modu berean, ez ulertzen, ez aplikatzen.

Hezkuntza Proiektuan adostuta ditugun balioekin teorian ados egon gaitzke, praktikan, ordea, balioen aurrean modu eta neurri desberdinean jokatzen da. Beti ere, norberak duen ikuspuntutik abiatuta eta inplikazio maila diferenteekin (busti gabe, alegia). Horregatik, komeniko litzateke adinaren arabera exijentzia sailkatzea; aplikazioaren jarraipena egitea inplikaturako estamentu guztietan eta, azkenik, ikasle, irakasle berri, guraso, eskolaz kanpoko begiraleei transmisio argi eta zuzena egitea.

5.2.2.- Gizarte eta familiaren garapenaren ondorioz, geroz eta gehiago eskatzen zaio eskolari baloreen lanketa.

Denok pentsatzen dugu ikastolari gero eta gehiago eskatzen zaiola. Gurasoek errazegi edo egokia den baino neurri handiagoan uzten dute beren seme-alaben heziketa eskolaren gainean, beraien arduraz saihestuz. Hori dela eta, eskolak gizarteak bidaltzen dituen mezuei tinko eta zorrotz erantzungo die eta elkarbizitzarako ezinbestekoak diren oinarrizko balioei eutsi.

5.2.3.- Hainbat guraso eta irakasleren inplikazio eta prestaketa faltak eraginda, exijentzia mailaren ahultzea.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



Orokorrean, gaur egungo gizartea azkar bizi da eta arina bihurtu da. Bizia, lana, betebeharrak...ahalik eta modu errazenean eta azkarrenean nahi ditu. Balioak aintzakotzat hartzea, gaurko gizaldian, ez dago ondo ikusia ere, horregatik inpliketzen denak frustrazioa izan dezake, emaitzak lortzen ez dituelako eta jendeak babesten ez duelako; inpliketzen ez denak, berriz, erraza du, ez du inolako arazorik.

5.2.4.- Gizartearen etengabeko aldaketak sor diezagukeen ezin egokitzea eta presioa, gure ustez desegokiak diren jarreraren nagusitzea dela eta.

Teknologiaren aurrerapenak, filosofiak, balioak...horrenbesteko aldaketa egin dute, eguneroko bizitzan erantzun zentzuduna ematea zaila egiten dela, eta, beldurra eta intseguritatea sortarazten dute.

5.2.5.- Geletan irizpide zehatz eta bateratuak ez aplikatzea. Jarrerak bateratu beharra.

Lan egiteko ohiturak, gela beraren antolaketak, gaien metodologiak, irakaslearen jarrerak, emaitzak, diziplinak... kontrolpean egon behar du, jakin egin behar da horiek betetzen diren ala ez eta jarraipena egin behar da ondo funtziona dezaten.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



6.- ELKARBIZITZA PROIEKTU HONEN ILDO NAGUSIAK ETA HELBURUAK.

6.1.- ILDO NAGUSIAK

Elkarbizitzarako Hezkuntzaren ildo nagusiak gure Ikastolan honako hiru norabide hauetan banatuko genituzke:

6.1.1.- Giza Balioen lanketa programatua eta sistematizatua, hasi Haur Hezkuntzatik eta DBH bukatzeraino.

Horretarako, lehenbizi, batik bat lantzea komeni zaigun balioak zehaztu behar ditugu.

Ondoren, gure testu liburuen eta gai honi buruzko material pedagogikoaren azterketa egin.

Eta azkenik, programaketa zehatzak diseinatu eta aplikatu.

6.1.2.- Eskolan eman daitezkeen gatazken ebazpenerako eta berdinen arteko tratu txarren aurrean jarraitzeko protokoloa eta ekinbideak tratatzen dituzten metodo eta estrategietan trebatzea.

6.1.3.- Irakasleen Formakuntza saioak, nola Berritzeguneak edo GIEk antolatutako mintegietan, hala Ikastolan bertan prestatutako saio edo ikastaroetan. Halaber, formakuntza saioak, hitzaldiak etab. guraso nahiz ikasle helduenengana zabaltzea.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



6.2.- HELBURUAK

6.2.1.- Bizikidetzaren giro egokia lortu ahal izateko ekimen prebentiboak garatu.

6.2.2.- Kideen arteko harremanak elkarrenganako errespetuan, elkartasunean eta elkarbizitza arauen barneratzean oinarritu.

6.2.3.- Gatazkak ekidin eta jokabide larrienak gutxitzeko gelako giroa nahasten edo txartzen duten jokaera disruptiboak ahal den guztia gutxitu.

6.2.4.- Gatazken konponbidea era hezitzailean ikasle eta irakaslearen arteko negoziazioaren eta ahaleginaren bidez konpontzeari lehentasuna eman.

6.2.5.- Jokabide arazoaren aurrean koherentziaz jokatu, irakasle guztien interbentzioak ildo beretik joan daitezkeen, ikasleak nahas ditzaketen kontraesanak ekidituz.

6.2.6.- Jokabide disruptiboaren arrazoiak aztertu eta ahal den neurrian konpondu, aurrerago sor daitezkeen elkarbizitza arazoaren aurrean nola jokatu irakatsiko diguten esperientzia gisa erabiliaz.

6.2.7.- Zigor neurriak elkarbizitza arazoak konpontzeko azken baliabide gisa erabili, gainerako motibazio eta estrategiek huts



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



egiten dutenean eta interbentzio ezak kalte gehiago sor dezakeenean soilik.

6.2.8.- Hezkuntza komunitateko kide guztien formazioa sustatu, gatazkak tolerantziaz eta indarkeriarik gabe konpon daitezten.

6.2.9.- Gehiegizko indibidualismoaren aurrean talde lana sustatuz, lan solidario eta kooperatiboarekiko interesa garatu.

6.2.10.- Laburbilduz, gure Ikastolaren Funtsezko Ezaugarrietan aipatzen genuen bezala, ikasleak arduratsu, autonomo, kritiko, solidario, demokratiko, parte-hartzaile eta giza-legez jokatzen dutenak izan daitezten lortzea.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



7.- BALIOEN DEFINIZIOA

Balioetan heztea epe luzeko lan iraunkorra da. Balioak landu eta garatzeko gune nahiz egoerak sortu beharko ditugu eta ulertzen lagunduko duten jarrerak aztertu. Hitz batez, balio horiek bizitzeko aukerak aprobetxatu eta eskaini, batzuetan espreski lantzeko une eta egoeretan, hau da Curriculumeam txertatuak. Beste hainbatetan, berriz, eguneroko dinamikak berak eta gertaerek eskaintzen duten abagunea hartuz edo beharrak eraginda suertatzen diren esku-hartzeetan.

Hauk dira guk tratatuko ditugun balioen definizioak:

7.1.-AUTONOMIA

Gure burua osotasunean sentitu eta bizitzeko gaitasuna da, ezaugarri fisiko, intelektual, emozional eta harremanezko bereziak dituen "ni" baten existentziaz jabe eta erantzule izanez, aukera eta erabaki pertsonal, profesional, akademiko...askeak hartuz eta burujabetasunez jokatzu.

Autonomiaz ari garenean, hautatutako aukera garatzeko beharrezkoak diren ekimenak norberaren iritziz aurrera eramateko eta erantzukizunez bere gain hartzeko posibilitateaz ari gara, nola eremu pertsonalean nola giza edo lan arloan.

Pertsona autonomoa izatea, norberaren bizitza, analisia, hausnarketa eta kontzientziaren bidez, era aktibo eta arduratsuan kudeatzeko gaitasunaren jabe izatea da. Gainera, ideiak ekintza bihurtzeko gaitasuna izatea esan nahi du, hau da, nork bere helburuak zehaztu, proiektuak planifikatu eta kudeatu aurreikusitakoa lortzeko xedez.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



7.2.- ERANTZUKIZUNA

Erantzukizuna, norberaren erabakien ondorioak onartzeko eta norberaren ekintzen aurrean erantzuteko gaitasuna da.

Pertsona erantzuleek egoera ezberdinak modu eraginkorrez baloratzeko eta kontsekuenteki erabakitzeko bitartekoak, jarrerak eta baliabideak dituzte, bizitzen dituzten esperientzietatik ikastea errazago gertatzen zaielarik.

Erantzule izateak, egiten dugunak geure buruari dagokion eremua gainditzen duela eta besteengan eta inguratzen gaituenarengan ere eragina duela konturatzea dakar. Errealitate osoa jasotzen duen ingurua: natura eta gauzak, beste pertsonak eta baita neu ere. Gure inguruan gertatzen denaren erantzule eta protagonista gara.

7.3.- TOLERANTZIA

Tolerantzia ezberdintasunaren aurrean errespetua eta begirunea agertzeko gaitasuna da; norberarengandik izateko eta jokatzeko modu ezberdina onartu, edota, zilegizko aniztasuna besteengan onartzeko jarrera moduan ulertua.

Tolerantziaren xedea bizikidetza baketsua da, banakotasuna eta aniztasuna ezagutuz.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net
www.herriametsa.com



Beren naziotasuna, erlijioa edota kultur ondarea edo pentsakera dela eta ezberdin ikusten diren pertsonekin loturiko estereotipo edo aurreiritziak aurkitu eta baztertzeko aukera eskaintzen digu tolerantziak.

Beraz, tolerantzia jarrera edo estilo bat da, non norberak gauzak azaldu, arrazoitu eta libreki egiaztatzeko bidea irekiko duena, norbere buruarentzat eta besteentzat.

7.4.- ERRESPETUA

Errespetua gizarteari eta banakoei dagozkien eskubideak ezagutu, onartu eta begirunez tratatzeko gaitasuna da. Bizitzaren handitasuna pertsona bakoitzarengan dago, beraz, edonork du errespetuz eta duintasunez bizitzeko eskubidea.

Errespetua norberarengan hasten da. Errespetuaren abiapuntua, gizabanakoen izaera berezi eta bakarraren ezagutzan oinarritzen da. Norberaren ulermenarekin esperimentatzen da benetako auto-errespetua, eta horregatik, norberarenganako errespetuaren balioa eguneroko bizitan praktikara eramateko gaitasuna dugu xede, besteekiko errespetauren garapena ziurtatzeko bide gisa.

7.5.- AHALEGINA

Ahalegina, gure alderik onena ateratzea ahalbideratzen duen gaitasuna da, burutzen dugun ekintzan gogo eta esfortzu guztia jarriz. Eusten eta bukaeraraino iristen laguntzen digu, agertu daitezkeen zailtasunak gaindituz, ezarri ditugun helburuak lortu arte.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



Ikasleak sor dakizkieken zailtasun eta oztopoei aurre egiteko beharko dituzten gaitasunak garatzen laguntzeko estrategia eta baliabidez hornitzea da helburua, konformismoa edo ezintasuna, gauzak ez baloratzea eta horrekin batera, beraietaz gozatzeko ezintasuna eta entusiasmo gabezia bezalako sentimenduen ondorio txarrak ekidinez, horrela, garapen pertsonalerako arriskutsuak izan daitezkeen jokabideak saihestuz.

7.6.- AUTOESTIMUA

Autoestimua norberak bere buruarekiko duen jarrera da. Bizitzan zehar faktore ugariaren eragina jasotzen duen prozesu dinamikoa da. Garantzitsua da azpimarratzea, haur baten autoestimua, inguratzen duten baldintzen eta pertsonen arabera, aldakorra izan daitekeela.

Gertakari baikorrek autoestimua positiboa indartzen dute eta porrotek, berriz, autoestimua ezkorra pizten dute, biak aldi berean eman daitezkeelarik eguneroko bizimoduan.

Norberaren balorazio positiboa jasotzeak garapen psikologiko osasuntsu eta orekatua errazten du, bai bere inguruarekin, bai erlazionatzen den pertsonekin.

Ekintza zehatzak sustatu behar dira, eskaintzen zaien heziketaren ondorioz ikasleek autoestimua modu egokian gara dezaten.

7.7.-LANKIDETZA

Lankidetzaren helburua giza haremanetan guztiek onurak jasotzea da eta elkarren arteko errespetuan oinarritzen da.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



Lankidetzak orekatasuna, gaikuntza, erraztasuna eta entusiasmoa bermatzen laguntzen du. Bakoitzak urrats bat emateko, txikia bada ere, bitartekoak ezartzen ditu, gero urrats horiek guztiak batuta helburua lortzea ahalbidera dezaten.

Lankidetzak posiblea da erraztasunez eta ez astuntasunez ematen denean. Eta erraztasunez emateak, zintzotasuna eta emankortasuna eskatzen ditu. Emankortasunak, berriz, norbera beste guztien lankidetzak jasotzeko gai egiten du. Norberak besteengan sinesten badu eta konfiantza erakusten badu, beraiengan ere sentimendu berberak eraikitzen ditu, eta honek errespetua, laguntza eta elkartasun giro aberasgarria sortzen du.

7.8.- ELKARTASUNA

Besteekin eskuzabaltasunez erlazionatzeko gaitasuna da.

Elkartasuna elkar ezagutze eta desberdintasunekiko errespetuen bidez garatzen da. Jarrera honek zera suposatzen du, gizartearen balore nagusien edo "normala" edo onargarri ulertzen denaren barruan egon ala ez, onartu eta errespetatu egiten dituzten berdintasuneko harreman baloreekin konpromisoa hartzen dugula.

7.9.-IRITZI KRITIKOA

Ingurune soziokulturalaren gaineko azterkeak eta hausnarketak egiteko gaitasuna da, errealitatearen eta aldaketen inguruko beste ikuspegi batzuekiko jarrera malguak sustatuz.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



Kritika eraikitzailea sustatu behar da, ikasleak gertaera ezberdinen aurrean beren jarrera edota iritzia eraiki eta defendatzeko gai izan daitezen edota aldatzeko gaitasuna eta malgutasuna ere izan dezaten.

7.10.- EGI AZALETASUNA

Egiazaletasuna balore etiko bat da. Jokabide zintzoari dagokio gezurra ezeztatzeko beharra gureganatzea.

Egiaren hurbilketa-ahaleginean ikuspegi ezberdinak ezinbestekoak direlako, egia eta errealitateak anitzak baitira, ahalmen kritiko eta hausnarketa gaitasuna ezinbestekoak dira.

Pertsonak, egiazale izango bada, aniztasunarekiko errespetua, dogmatismorik eza eta ikuspegi kritikoaren garapenean hezi behar du.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



8.- IKASTOLARAKO PLANGINTZA PROPOSAMENA – TUTORETZA PLANA

Zehar-lerroak, Balioak eta Elkarbizitza bezalako gaiak betidanik landu izan ditugu Ikastolan hasi txikitatik eta ikasketak gurean bukatu arte. Batetik, maiz, testu-liburuek emandako jarduerak zirela medio, beste hainbatetan lortutako beste zenbait materialen bidez (Osasunkume, Bakearen hezkuntzako materiala, Elkartasun kanpainak, Ingurugiroari buruzkoak, Sexu heziketa ikastaroak, Drogomenpekotasunaren aurkako kanpainak, Kontsumismoa etab.)

Gaur egun, Haur Hezkuntzako **URTXINTXA** eta Lehen Hezkuntzako **TXANELA** proiektuak daramatzagu aurrera, eta globalizatuak diren neurrian, **BALIOEN** lanketa bertan txertaturik dago. Honela, koherentea izateaz gain, lotura bat mantentzen da bi etapa hauetako ikasturte guztien artean.

Aurten, ordea, plangintza sistematizatu, koherente, integral, jarrai eta osatuago bat antolatzen ari gara Ikastola guztian zehar, goitik behera eta behetik gora. Halaber, tutoreak, balioetako irakasleak nahiz beste edozein irakaslek kontuan hartu eta une batean aplikagarria izan dadin lortu nahi genuke, BALIOen lanketa ez baitugu asignatura bezala ikusi nahi, egunerokotasunean txerta daitekeen zer bait bizia bezala baizik.

Plangintza honi **TUTORETZA PLANA** deitu diogu eta lana aurrera eramateko ardura **TUTORETZA** eta **ORIENTAZIO** eremuko taldeak



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



hartu du, nahiz eta **ELKARBIZITZA** taldearekin ere zuzenean koordinatu, alorrak ezinbestean bi eremuak ukitzen baititu.

Bertan, mailaz maila eta gaiez gai jorratzen diren balio guztiak bildu, sailkatu eta moldatu dira, jarduera mota zehaztuz.

Hala ere, komenigarria iruditzen zaigu plangintza honen implementaziorako X. R. XARES eta R. ALZATE adituek aipatzen dituzten **OINARRI PSIKOPEDAGOGIKOAK** azpimarratzea, kontutan izan ditzagun.

IRAKASLEAREN GIDARITZARI DAGOKIONEZ:

Lehenik eta behin esan, bizikidetzarako hezkuntzak metodo induktibo, zuzen, aktibo eta motibatzailean oinarritu behar duela. Gainera, komunikazio gaitasunari egundoko garrantzia eman behar zaio klasetan, eztabaidatzen ikastea beharrezkoa baita.

- Esaten eta egiten dugunaren arteko lotura ikasleei ebidenteki erakutsi beharko diegu (neska-mutilek irakaslearen koherentzia sumatu beharko dute) . Haiei eskatzen zaiena gugan bilatu beharko lukete.
- Komunikazio espazioak sortu beharko ditugu eta interlokuziorako prest egon.
- Autoritatea arrazoibidearekin orekatu beharko dugu (diziplina positiboa)



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



- Ikasgelan sor daitezkeen auziak inplikatuekin ebazten saiatu beharko dugu (konponbiderako konpromisoa)
- Ikasleen partaidetza eta zeresana suspertu eta haien nortasuna zainduko ditugu.

IKASLEARI DAGOKIONEZ

- Ingurukoekin dituen harremanetan konprometiturik dagoela erakutsi behar du (ikaskideekin, irakasleekin, gurasoekin...)
- Bidezkoa iruditzen ez zaionarekin kritiko azaldu beharko du, ikuspuntuak argudiatuz.
- Autoestimua, kontsiderazioa eta errespetua norberarengan eta besteengan baduela frogatu beharko du.
- Gatazkak modu baketsuan, arrazoibidean, ebaz daitezkeela konturatu beharko du.
- Elkarbizitzarako arauak ezinbestekoak direla barneratu beharko du.

TUTORETZA PLAN hau ERANSKIN gisa gehituko diogu Dokumentu honi.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



9.- III. EREMUARI DAGOKION IKASTURTEKO PLANGINTZA

2006/2009 ESTRATEGIA PLANA egina, adostua eta onartua dugu Herri Ametsan eta Hezkuntzari dagokion alorrean, beste zenbait punturen artean honako bi hauek agertzen dira Elkarbizitzarekin zerikusi zuzena dutenak:

EP-H.5 – IKASLEAK BALIOETAN HEZTEA:

H.5.1. Gizartean sortzen diren balio berriei aurrea hartu eta horien aurrean jarrera finkoak gauzatu.

H.5.2. Diziplina prebentiboa lehenetsi

EP-H.6 – IKASLEEN ANIZTASUNARI ERANTZUN:

H.6.1. Orientazio departamendua indartu.

H.6.2. Tutoretza ekintza planak ezarri.

H.6.3. Etorkinekin lana egiteko prestatu.

Honez gain, 2007/2008 IKASTURTEKO PLANGINTZA OROKORRA ere zehaztua dago eremuz-eremu. Aurtengo helburu nagusien artean dago Elkarbizitza Proiektu hau gauzatzea eta baita ere, jadanik osatua dagoen Elkarbizitza taldea eratzea, zeinetan aztertuko liratekeen sortutako gatazka esanguratsuak.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



Hau da sortu berria den ELKARBIZITZA TALDEA-ren OSAKETA :

ZUZENDARIA
IKASKETA BURUA
3 ETAPETAKO KOORDINATZAILEAK
ORIENTATZAILEA
ELKARBIZITZA EREMUKO ARDURADUNA
DAGOKION TUTOREA.

Funtzioak Barne Araudiko 3.2.5. atalean azaltzen dira.

Ondoren eta adibide gisa txertatu dugun taula da
**2007/2008 IKASTURTEKO PLANGINTZA: ELKARBIZITZA (III.
Eremua)**



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



Helburu Nagusiak	Ekintza Plana	Arduraduna	Epea	Adierazleak	Lorpen Tasa
1. Ikastolako giroa abiapuntu izanik, irakasleen arteko harremanak neurtzea.	<ul style="list-style-type: none"> Inkesta baten bidez ikastolako giroa neurtu 	KEIko inkesta Taldea	Lehenengo hiruhilabetea	<ul style="list-style-type: none"> Partaidetza portzentaia %. Ekarpen kopurua 	%75 baikorra
2. Ikastetxeko elkarbizitza hobetzeko neurri prebentiboak prestatzea	<ul style="list-style-type: none"> Tutoretza Planean ikasgelako giroa aztertze eta elkarbizitza arauak ezartzeko jarduerak sartu Elkarbizitza arauak ikasle eta irakaslek adostutako orrialde bateko txosten batean gauzatu 	Ikasketa Burua	Ikasturtean zehar	<ul style="list-style-type: none"> Ekarpen kopurua Kexa kopurua Dokumentu esplizitua Baikor ebaluatu % 	% 100
3. Elkarbizitza taldea sortzea	<ul style="list-style-type: none"> Bai Pedagogi Taldean bai etapa desberdinetan Elkarbizitza Taldearen inguruan eztabaidatu 	Zuzendaritza Taldea	Ikasturtean zehar	<ul style="list-style-type: none"> Ekarpen kopurua Dokumentu esplizitua Baikor ebaluatu % Taldearen konposaketa 	% 100
4. Sor daitezken gatazkak bideratzeko protokoloak gauzatzeari.	<ul style="list-style-type: none"> Lege berria aztertu eta diziplina inguruan azaltzen diren aldaketak ezarri Etapetan protokoloa eztabaidatu 	Ikasketa Burua	Urria	<ul style="list-style-type: none"> Kexa kopurua Baikor ebaluatu % Ekarpen kopurua Dokumentu esplizitua 	% 100



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



Helburu Nagusiak	Ekintza Plana	Arduraduna	Epea	Adierazleak	Lorpen Tasa
5. Guraso Komisioarekin koordinatuz elkarbizitzaren inguruko hitzaldiak bideratzea	<ul style="list-style-type: none">Gurasoen Elkarateak berdinen arteko larderiaren eta jazarpenaren aurkako hitzaldiak antolatu	Ikasketa Burua	Ikasturtean zehar	<ul style="list-style-type: none">○ Bilera kopurua%.○ Partaidetza.	% 75
6. Irakasleen satisfazio maila neurtzea	<ul style="list-style-type: none">Inkesta baten bidez irakasleen satisfazio maila neurtu	KEIko inkesta Taldea	Ikasturtean zehar	<ul style="list-style-type: none">○ Partaidetza %.○ Ekarpene kopurua	% 75
7. Elkarbizitza Proiektua gauzatzea	<ul style="list-style-type: none">Dokumentua idazten hasi	KEIko 3. eremua	Ikasturtean zehar	<ul style="list-style-type: none">○ Partaidetza portzentaia %.○ Ekarpene kopurua○ Dokumentu esplizitua	% 75



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



10.- OHIKO DIZIPLINA ARAU HAUSTEAK

Diziplina ezin dugu jarrera ezezkor baten aurrean zigor sistema bat bezala ulertu, baizik eta **pertsona bakoitzak bere betebeharren kunplitzea errazteko baliagarria den barne ohitura bat** bezala. Horrela ulertuz, **diziplina norberak, bere askatasun pertsonalaren arabera, menderatzeko gaitasuna litzateke.**

Agian pentsa zitekeen giro on batean edo irakasle baten jokaera positiboa direla eta diziplina aruak ez liratekeela behar izango, baina ez dugu uste arau hauek arazoak daudenerako bakarrik direnik baliagarriak, **arau hauek** baitira hain zuzen **bizikidetasuna bermatzen** dutenak.

Beraz, denok onartutako erreferentzizko arau batzuk beharrezkoak gertatzen dira. Baina arauak eraginkorrak izan daitezen beharrezkoak lirateke honako baldintza hauek:

- **Zehatzak eta H.Parekin koherenteak izatea.**
- **Modu argi eta ulerterrazean adieraziak eta arrazoituak egotea.**
- **Guraso, ikasle eta irakasleek ezagutuak eta onartuak izatea.**
- **Betetzeko exigentzia barneratua izatea.**

Hala ere arauak, berez, ez dira nahikoak kausa-ondorio edo falta-zigor bezala aplikatzen baditugu, aruak betetzen ez dituen bere oker edo akatsez jabetzen ez bada. Diziplina instrumentu hezigarri bihurtu behar dugu. Diziplinak ikasleen erantzukizunaren garapena ahalbideratu behar du.

Diziplina eza maila, garrantzia eta maiztasun desberdinetakoak izan litezke, beraz, kasu askotan elkarrizketa bat aski izan daiteke egoera zuzentzeko.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



Beste batzuetan, ordea, beste erremediorik ez balego edota komenigarria ikusiko balitz, neurriak hartzea jo beharko genuke. Honelakoetan egokia litzateke zenbait puntu kontuan hartzea:

- Zigor edo neurriak ez dira inoiz errepresalia bat izan behar.
- Hutsaren garrantziarekin proportzionatua behar du izan.
- Erabakiak beroaldian hartzea ez da egokia izaten.
- Zuzenketak edo atentzio deitzeak ahal dela pribatuan egitea komeni da.
- Zigor bat, jasotzen duen pertsona hobetzen laguntzen duen neurrian izango da baliagarria.
- Zigorrean, irakasleak ez luke epaile paperik hartu behar, ezta ere erresuminduta agertu; ikasleari huts hori berriro errepikatuko ez den uste osoa azaltzen saiatuko da.
- Zigor bat ezarri aurretik ikaslearen bertsio osoa ezagutu behar da.
- Maiz, ikaskideen irizia entzutea lagungarri suerta daiteke.
- Klasetik bidaltzea, oro har, ez da neurririk aproposena izaten, irakasle baten lana ez baita ikasle hobereenekin geratzea, baizik eta denen heziketa integrala lortzea, desegokiak diren jarrerak aztertuz eta zuzenduz.
- Hartutako neurrien ondorioak nabarmenak direnean, Koordinatzaileak, Elkarbizitza taldeak, edota Zuzendaritzak esku-hartu beharko du.

Diziplina, beraz, tresna hezigarria izan daiteke. Horregatik portaera desegoki baten aurrean, neurriren bat hartu baino lehen, komenigarria izango litzateke ikasle horren egoera ezagutzea eta bere ikaskideengan izango duen ondorioa aurikusten ahalegintzea. Zigorra baino, garrantzitsuagoa litzateke berriro beste horrelakorik ez gertatzea.

Baina bestalde, ez da nahikoa izango barkamena eskatzearekin, baizik eta ondorioak ere jasan egin beharko ditu



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



(zikindutakoa garbitu, puskatutakoa konpondu, puskatutakoa edo galdutakoa ordaindu, iraindu duenari denen aurrean barkamena eskatu etab.)

BIZIKIDETASUN ARAUAK benetako Hezkuntza Komunitate bat lortzeko baliabide bat dira, eta, ondorioa, askatasun erantzukizunaren gauzatzean datza. Eta honek pertsonetikiko errespetoa, ordena eta diziplina giroa eskatzen duen bezala, Hezkuntza Komunitateko partaide guztien arteko lankidetasuna ere beharrezkoa du.

Ikastolako BARNE ARAUDIAN ZEHAZTUAK (7 atalean) agertzen dira ondoren aipatzen diren arlo hauek guztiak:

- Eskubide eta Betebeharrak.
- Hutsegiteak, zigorrak eta prozedurazko garantiak.
- Arau-hauste motak : arinak , larriak eta oso larriak.
- Hutsegite mota bakoitzari dagozkion ondorio estandarrak.
- Diziplina espedienteak

11.- GATAZKEN TRATAERA

11.1.- GATAZKA KONTZEPTUAREN DEFINIZIOA

Gatazka hitzari ezaugarri ezkorrak eransten dizkiogu ia beti. Gatazka sufrimenduarekin, frustrazioarekin, inpotentziarekin edo konponezina den egoera batekin lotzen dugu gehienetan. Baina adituek beste definizio hau gehitzen diote : "***gatazka pertsonen arteko bizikidetzari dagokion errealitatea da***". Giza harremanak dauden esparruetan, hots, familian, bikotean, lanean, adiskide artean, ikastolan...,gatazkek sortzen dira. Gatazka, hortaz, elkarbizitzari dagokion egoera bat da. Era berean zera azpimarratzen dute. Gatazka ez dela ekar ditzakeen ondorioekin nahastu behar (frustrazioa, ondoeza, amorrua, estresa edo biolentziarekin adibidez). Gauza bat pertsonen



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



arteko gatazka litzateke (eskolaren esparruan ikasle, irakasle eta gurasoen artean eman daitezkeen desadostasunak) eta beste bat gatazka sor ditzakeen efektu edo ondorioak (gatazkaren adierazpenak genituzke hauek).

Beraz, gatazka bizikidetzari dagokion errealitatea izanik, hau ebazteko, konpontzeko, bideratzeko, aukera hezitzailea ere badela esan ohi da. Eskola-gatazken ebazpenak, aukera hezitzaile bikain baten aurrean kokatzen gaituela esan genezake.

GATAZKA:

- Bizitzari dagokion errealitatea da.
- Giza harremanak ematen diren eremuetan ematen da.
- Aldaketarako aukera da.
- Konponbideak, akordioak aurkitzeko aukera da.
- Desberdinen arteko lankidetzarako aukera da.

GATAZKAREN ADIERAZPEN EZKORRAK :

- Pertsonen arteko etenek sortutako efektuak genituzke. Bertan esperientzia sentimentalek presentzia handia dute (nola sentitu dugun, nola bizi izan dugun gatazka, e.a.). Ikasle, irakasle edo gurasoen arteko gatazka eskolarretan, tamaina eta intentsibotasun desberdinetan, ondorengo adierazpenak azaltzen dira :



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21
Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net
www.herriametsa.com



agresibotasuna, inposaketa, prepotentzia, mendekua,
inkomunikazioa, mina, umilazioa, deskalifikazioa, irainak e.a.

GATAZKAREN AURREAN HARTZEN DIREN JOKABIDE EZKORRAK:

- ❑ Gatazka ukatu, gatazkarik ez dagoela adierazi; arazorik ez dagoenez, ez dago zer konpondurik.
- ❑ Gatazkari izkin egin, gatazkari bizkarra eman. Kasu honetan arazoa badagoela onartzen da baina honi aurre egiteko konpromisorik ez dago. Ihes egiteko joera litzateke.
- ❑ Gatazkaren aurrean amore eman. Indar korrelazioa bere alde duenaren aurrean makurtzea litzateke.
- ❑ Gatazka bideratzeko nagusitasuna aplikatzea (akordioaren tokian garaipena lortzea)
- ❑ Gatazka denborak konponduko duen planteamendua egin
- ❑ (konponbiderako interbentzio egitasmorik burutu gabe, ezer egin gabe denbora pasatzen utzi).

11.2.- GATAZKEN ANALISIA ETA EBAZPENERAKO URRATSAK:

Ikasle, irakasle eta guraso talde batek lankidetzaz, konfiantza eta komunikazioa bere ohiko harremanetan barneratuak dituen jokabideak dituzenean, sor daitezkeen gatazkak ebazteko aukera itxaropentsuak izango ditu. Horregatik, kooperazioa, komunikazioa eta konfiantza egunero landu eta zaindu beharreko baloreak dira. Ikasle, irakasle eta gurasoen arteko harremanetan errespetua,



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



afektibotasuna, gertukotasuna, ardura eta interesa trukatu behar ditugula esaten zaigu behin eta berriro. Baloreen lanketa, balioen praktika efektiboa, gatazken ebazpen positiboaren hitzaurrea da, hortaz.

Hau esanda, aipa ditzagun ikasle, irakasle edo gurasoen eskola gatazka jakin baten aurrean zer nolako analisia edota urrats ebazleak proposatzen zaizkigun :

11.2.1.- GATAZKAREN **ZERGATIAK** ANTZEMAN

Benetako gatazka (sakonekoa, muina) bigarren mailako gatazketatik (azalekoak) desberdindu beharko genituzke. Egoeraren diagnostikorako eskola gatazkaren kausak, zergatiak, erroak jaso beharko dira. Arazoaren gakoa non dagoen jakiteak konponbiderako aukerak irekiko dizkigu. Garrantzitsua da zergatien datu bilketa honetan gatazkaren partaide diren guztiekin arazoaren muina non dagoen kontrastatzea.

11.2.2.- GATAZKAREN **PROTAGONISTAK** ZEIN DIREN ARGITU

Lehen eta bigarren mailako protagonistez arituko ginateke. Gatazkaren adierazpenek sortutako ondorio emozionalak kontutan hartzekoak dira. Gatazkek ildo pertsonal nabarmena dutenean gatazka bera pertsonekin identifikatzen dugu. Gatazka pertsonekin nahastea ez da zuzena. Gauza bat gatazka da eta bestea pertsonak, jakinda gainera pertsonok konpondu beharko ditugula guk geuk sortutako arazoak. Gatazkaren protagonista nagusiei dagokie gatazkari irtenbidea, soluziobidea ematea. Inplikatuena atal gizakoia suspertzea garrantzitsua da, ondoeza ekiditeak beste bizi-kalitate baten baitan jarriko baikaitu.

11.2.3.- GATAZKAREN **BILAKAERA** EZAGUTU



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



Gatazkak egin duen ibilbidea ezagutzea kontutan hartzekoa da baita ere, honen konponbidean interesatuak bagaude behintzat. Ikasle, irakasle, gurasoen eskola - gatazkaren kapituluak, atalak, katea ezagutu beharra dago, kronologia, alegia. Pertsonok (ikasle, irakasle, guraso) izan dugun jokabideaz konsziente izatea, zertan hutsegín dugun ohartzea, konponbiderako galdu ditugun aukerak berreskuratzeko posibilitateak barneratzea etab. garrantzi handikoak dira. Zertan ez hutsegín eta konponbidearen nondik norakoa zuzentzeko aukerak errazten dizkigu gatazkaren bilakaeraren datu bilketa honek.

11.2.4.- GATAZKAREN **TESTUINGURUA**

Eskola-gatazkaren analisirako ezinbestekoa da gatazkaren ardatzaren baitan dauden egoerek, elementuek, faktoreek, pertsonak nolako baldintzak markatzen dituzten jakitea. Gatazkaren testuinguruan parte hartzen duten faktoreak ezagutzea beharrezkoa da. Testuingurua modifikatzen has gíntezke, gatazkaren inguruan dagoen faktoreren bat modifikatuko bagenu. Pertsonaren jokabideak dira (ikasle, irakasle eta gurasoenak) gatazkaren testuinguruak tentsotu edo malgutzen dituztenak. Pertsonak gara testuinguruak sortu eta gure jokabide aldaketa dela medio modifika ditzakegunak.

11.3.- GATAZKARI NOLA AURRE EGIN

Nagusitu den gizarte garatu eta teknifikatu honetan, sozializazio prozesuak gehiago oinarritu dira lehiakortasunean lankidetzan baino, inposaketan akordioan baino, azken emaitzetan prozesuetan baino, adoktrinamenduan komunikazioan baino. Irabazle/galtzaile formula sakralizatu duen gizarte



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



honetan, hala ere, ikastolak gatazken ebazpenerako bestelako urrats single hauek bereak egiten ditu.

- Eskola-gatazken ebazpenetan ikasle, irakasle eta gurasoek ikasteko aukera dugu: gure arteko elkarbizitza zein paradigmaren baitan ematea planteatzen dugulako.

- Gatazken ebazpenak tratatzerakoan, ikasle, irakasle eta gurasoen Elkarbizitza eredu eta praktika zuzentzeko aukera baten aurrean ginateke. Jokabideak, ikastolako egitura nahiz ardurak, helburu hezitzaileak, baloreak etab. aztertu eta hobea goetzeko parada izaten dugu gatazka eskolarren ebazpen aukerak ditugun bakoitzeko.

- Gatazka baten aurrean egin behar eta ekidin beharrekoak gure jokabidearen berrikuspen kritikoa ere badakar.

Hona hemen, Juanjo Gomezek, KEI-ko gure teknikariak eskainitako orientabideak laburbilduta :



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com





ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



KONPONBIDERAKO URRATSAK	KONPONBIDERAKO TRABAK
Egoera tentso baten aurrean lasaitzen saiatu, egoera baretzen saiatu.	Egoera tentsotu, pentsatu gabekoak egin, norgehiagoka muturreraino eraman.
Arretaz entzun, mezua jaso, komunikazio guneak ireki.	Kasurik ez egin, mezua mespretxatu, komunikazioa baztertu.
Begirunez hitz egin, errespetua gorde.	Pertsonak deskalifikatu, iraindu, umilatu.
Gatazkan arreta ipini.	Gatazka gutxietsi.
Gatazkak eta pertsonak bereizi, ez nahastu.	Gatazkak pertsonalizatu.
Norberaren iritzia arrazoitzen jakin bestearen iritzia errespetatu.	Orojakitun perfektu gisa sentitu, besteak gupidarik gabe epaitu.
Hutsegiteen aurrean barkamena eskatzen eta eskaintzen jakin.	Setatia izan, gure iritzia soilik aintzatetsi.
Konponbiderako egitasmoa izan, adostasun urratsak eman.	Konponbideak oztopatu, gatazka tentsotu edo mantendu.
Akordioak adostu, konponbideak hitzartu eta horiek bete.	Hitzartutakoa ez bete, akordioak lehertu.
Gatazka ebazteko laguntza eskatu.	Gatazka mantentzeko kideak bilatu.

**12.-
BERD
INEN
ARTE
KO
TRAT
U
TXAR
REN
AURR
EAN
JARD
UTEK
O
GIDA

12.1.-
TRATU
TXARR
EN
DEFIN
IZIOA
ETA
EZAUG
ARRIA
K**



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza Sailburuordetzak aurkeztutako dossier batean

(2005), bullyingaz ondorengo definizioa azaltzen da: ***“Ikasle batek erasoak pairatzen dituela edo biktima bihurtzen dela esan ahal izateko, etengabe eta aldi berean jasan behar ditu ikasle batek edo batzuek ematen dizkioten tratu txarrak” (Olweus 1998).***

Berdinen arteko tratu txarren **ezaugarriak** ondorengoak genituzke:

Botere desoreka: desberdintasun bat gertatzen da botere fisiko, psikologiko eta sozialari begira, eta horrek indarren desoreka sortzen du pertsonen arteko harremanetan.

- **Nahita egitea / errepikatzea** : mina nahita egitea denboran errepikatzen den eraso baten bidez adierazten da, eta portaera horrek geroago beste eraso batzuen jomuga izango den beldurra sortzen dio biktimari.
- **Babes gabezia / pertsonalizazioa** : ikasle bakar bat izaten da normalean tratu txarren biktima, eta horrela babesik gabeko egoera batean jartzen da.

Berdinen arteko tratu txarren **motak**:

- **Gizarte bazterketa eta marjinazioa** : Norbaiti ezikusiarrena egitea (pasiboa). Norbaiti parte hartzen ez uztea (aktiboa) .
- **Ahozko eraso** : Norbait iraintzea (zuzena).Ikasleaz gaizki hitz egitea (zeharkakoa). Izengoiti mingarriak jartzea (mistoa).



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



- **Zeharkako eraso fisikoa** : Norbaiti gauzak ezkutatzea. Gauzak apurtzea. Gauzak lapurtzea.
- **Eraso fisiko zuzena**: Norbait fisikoki kolpatzea.
- **Larderia/ mehatxua / txantaia** : Beldurra sartzeko norbait mehatxatzea. Borondatearen aurka gauzak egitera derrigortzea. Armen bidez mehatxatzea.
- **Sexu jazarpena edo abusua**: sexu jazarpena egitea. Sexu abusua egitea.

Berdinen arteko tratu txarren **ondorioak**

- **Biktimarentzat** : eskola porrota, trauma psikologikoa, arrisku fisikoa, nahigabea, zorigaitza, nortasun arazoak eta haren garapen orekaturako arriskua.
- **Erasotzailearentzat**: portera arriskutsu baten eragilea dela erakusten du, boterea erasoan oinarritzen dela interpretatu du, indarkeriazko egintza neurritik gora baloratu du eta min egiten dabil.
- **Inguruan dituen ikaskideentzat**: portaera honen bidegabekeriaren aurrean jarrera pasibo eta eroso bat izatera eraman ditzake eta, halaber, pertsonaren balioari buruzko interpretazio okerra egiten dute.

12.2.- KASUAREN AZTERKETA ETA PREMIAZKO ESKU-HARTZEAK

Zuzendaritza Taldeak bilera egingo du behar den esku-hartzea aztertu eta baloratzeko. Behar izanez gero, behin behineko premiazko neurriak hartu beharko dituzte, erasotutako pertsona babesteko edota erasoak ekiditeko.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



- ❑ **Erasotutako ikaslearen segurtasuna berehala bermatuko duten neurriak:** zaintza neurriak areagotu, babesak bermatu, bitartekarien partehartzea, taldez aldatzea, ikasleak konponbidean txertatzea.
- ❑ **Ikasle erasotzaileei zuzendutako zuhurtziazko neurriak:** Gertaeren larritasuna kontuan hartuta (azken muturreko neurri gisa), apirilaren 19ko 160/1994 dekretua aplikatu daiteke (kaleratzea), EAEko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubide eta eginbeharrekoak buruzkoa hain zuzen.

Parte hartzeko eskaera familiarik ez badator, tutoreak, Zuzendaritza Taldeari aldezturik egoeraren berri emanez, behar den zuhurtziarekin eta elkarrizketaren bidez, kasu jakinaraziko die zerikusia duten ikasleen familiei, egoerari eta hartzen ari diren neurriei buruz informazioa emanez.

12.2.1 INFORMAZIO BILKETA

Ikastolak behar den informazioa (galdekizunak, elkarrizketak e.a.) eskatuko die jarraitzen diren pertsonari, jasotako datuak beti idatziz jasoz:

- 1.- Erasotutako ikaslea (k)
- 2.- Ikasle erasotzailea (k)
- 3.- Familiak
- 4.- Gelako tutore eta irakasleak.
- 5.- Erasotutako pertsonaren eta erasotzailearen ikaskideak, egoerarekin zerikusirik izan baldin badute.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



6.- Beste batzuk: Beharrezkoa balitz jantokiko zaintzaileak, autobus laguntzailea, atsedenaldiko begiraleak, Gizarte Ongizatea, Osakidetza...

12.2.2.- BILDUTAKO INFORMAZIOA GURUTZATZEA

Informazio iturri desberdinen artean bat datozen puntuak, non elkartzen diren eta haien arteko antzak eta desberdintasunak bilatu behar dira. Lortutako informaziotik abiatuz, Ikastolak berdinen arteko tratu txarren zantzurik dagoen erabakiko du, baita tratu txar horien mota eta larritasuna ere.

Kasuaren larritasunak horrela eskatuko balu, salatutako gertakariak Hezkuntza Ikuskaritzari jakinaraziko zaizkio eta hartu diren premiazko neurriak ere komunikatuko zaizkie.

12.2.3.- JARDUERA PLANA

Berritzeguneko Aniztasun eta Elkarbizitzarako Aholkularitzarekin, eta baita Ikuskaritzaren Aholkularitzarekin, jarduera plana diseinatuko litzateke. Plangintza honek interbentzio pautak zehaztuko ditu, nortzurekin zer egin eta nola. Izan ere, neurri horiek biktimaren, erasotzailearen eta ikasle "pasiboen" banakako tratamendua bermatu behar dute.

Garrantzitsutzat jotzen da ikastetxearen diagnostikoa egitea eta irakasleen eta familien informazioa eta prestakuntza premiak ezagutzea.

Elkarbizitza eta bakerako hezkuntza programak aktibatzea ezinbestekoa dela errepikatzen zaigu behin eta berriz.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



Gurasoei zerikusia duten ikasleekin hartutako banakako neurriak jakinarazi behar zaizkie, baita maila, talde edo antolakuntzarako proposatu diren prebentzio neurriak ere.

Ikastolako Zuzendaritza Taldearen ardura da, proposatu diren neurriak batearazteko eta horien berri emanez, inplikaturako ikasleen egoera azalduz, hartutako neurrien jarraipena eta ebaluazioa burutzea.

12. 3.- IKASTOLAN INDARKERIA EKIDITZEKO PREBENTZIO NEURRIAK

12.3.1.- ESKOLA KOMUNITATEA GAI AZ SENTSIBILIZATZEKO NEURRIAK

- Neur daitezkeen datuen bidez (galdekizunak, soziogramak) ondorengo puntuak aztertzea: ikasleen arteko harreman pertsonalak, gatazka motak, eskola eraikineko leku arriskutsuak, arriskua noiz gertatzen den eta izanez gero, gizarte-inguruaren arazoa.
- Gatazka mota hauei aurre egiteko prestakuntza programetan parte hartzea.
- Beharrezkoa balitz Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua, edo Barne Araudia edo Balore Lanketaren programak berrikusi, indartu eta gaurkotzea.
- Bai Ikastolaren Hezkuntza Proiektuan edo Urteko Planaren txostenean, Elkarbizitzarako Hezkuntzari dagozkion proposamen zehatzak sartzea.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



12.3.2.- IKASTOLAREN ANTOLAKETA BERRIKUSTEKO NEURRIAK

- Tutoretza bultzatzea, banakakoa eta taldekoa, elkarbizitzarako hezkuntzaren oinarrizko funtzioa den aldetik, taldearen egitura eta dinamiketatik eta ikasle bakoitza beren erreferentzia taldean integratuta egitetik abiatuz.
- Irakasleak gela batetik bestera joaten diren uneetan, ikasleak bakarrik uzte hori ekiditea.
- Ikastetxeko arrisku une eta tokietan prebentzio neurri eta arduradunak ezartzea.
- Ikasleek Ikastolako elkarbizitzari begira, jokabiderako arauak daudela barneratu behar dute. Beharrezkoa da, hortaz, ikasleei oinarrizko arauen kontsentsurako hitza ematea (ardura eman eta eskatu)

12.3.3.- IKASLEEK PARTE HARTZEKO ETA BEREN ARDURAZ JABETZEKO NEURRIAK

- Eskolako giroa hobetzeko eta biterkaritza programak garatzeko neurriak. Programa horien bidez, ikasleek gatazka egoeretan elkarren artean komunikatzen eta berdinen artean bitartekari izaten ikasiko dute. Horretarako, entzute aktiboaren, komunikazio trebezien eta eskola-gatazkek guztien parte hartzearen bidez konpontzeko teknikak landuko dituzte. Ikasle taldetxo batek Ikuskari eta bitartekari izateko ardura har dezake.
- Eskolako giroa hobetzeko ikasle eta irakasleek hitzartutako neurriak garatuko dira, ikasleei zuzendutako talde mailako banakako tutoretza planaren bidez.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



- Behar diren hezkuntza prozesuak etapa desberdinetako Curriculum proiektuetan planteatzea: gizarte ohiturak eskuratzea, arauak barneratzea, gizarte eta komunikazio trebetasunak garatzea, kontzientzia moralaren edo jarrera kritikoaren heldutasuna lortzeko helburuarekin.

12.3.4.- PREBENTZIORAKO ETA GATAZKAN DAUDEN IKASLEAK

BANAKA TRATATZEKO NEURRIAK

- Tutoreak, tutoretza saio edo ebaluazio batzorde edo beste bideetatik lortutako informazioaren bidez, jakin beharra dauka nortzuk diren tratatu txarrak pairatzearen arriskuan dauden ikasleak.
- Hartutako hezkuntza neurriak familiei jakinarazi behar zaizkie.
- Tutorea, Koordinatzailea, Ikasketa Burua, Zuzendaria, tratatu txarraren jakitun berehala egitea. Hauei dagokie gatazkaren kudeaketari ekitea.
- Hezkuntza eta zigor neurriak aplikatzea. Neurri horien jarraipena egin eta eraginkorrak izan diren aztertzea.
- Gatazka egoeretan sartuta dauden ikasleen hazkunde pertsonalari lotutako alderdien garapena:
 - Gizarte trebetasun asertiboak taldean lantzea.
 - Ikasleak pertsonen arteko harremanetarako hezteak.
 - Gizartearen aldeko joerak garatzea: lankidetzak, kooperazioa, aniztasunaren balorazioa.
- Autokontrolerako, empatiarako eta beste pertsonen sentimenduak ulertzeko teknikak lantzea.
- Indarkeriarik erabili gabe gatazkek konpontzeko alternatibak plazaratzea.
- Ulermenerako, begirunerako eta taldearen arauak norberak bere gain hartzeko hezkuntza garatzea.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



13. ERANSKINAK

13.1. Barne Atraudia 3.2.5:

3.2.5. Elkarbizitza Taldea

Honako hauek osatuko dute

Elkarbizitza-batzordeko burua zuzendaria da. Batzorde honetako partaideak hauek izango dira: orientatzailea , bi guraso (Kontseilu Errektorekoak), hiru koordinatzaileak, Elkarbizitza eremuko arduraduna eta ustez inplikaturiko pertsona egokiak, ikasleriari buruzko kasuetan ikaslearen tutorea izango delarik.

Zuzendaritza-taldearen esku dago Batzordean aztertu beharreko gaiaren edo auziaren arabera estamentu jakin bat bertara joatea komeni den edo ez erabakitzea.

Honako eginkizun hauek ditu:

- a) Elkarbizitzari buruzko urteko Plana egin eta Eskola Kontseiluari aurkeztea.
- b) Eskolako elkarbizitzaren funtzionamendua zaintzea.
- c) Tokia, denbora eta antolaketari dagokionez eskolako giroa hobetzeko proposamenak egitea.
- d) Arazoak sor ditzaketen egoerak detektatzea, estamentu guztien arteko komunikazioa ezin hobea izan dadin arreta berezia jarritz.
- e) Estamentu bakoitzari zein eskubide eta betebeharrak dituen jakinaraztea eta arazoak nola bideratu behar dituen adieraztea.
- f) Eskolan sorturiko arazoak konpontzen laguntzea, guztientzat era positiboan konpon daitezkeen, lehen arazoa sortu zuen egoera konpontzen eta konponketa-prozesuan arreta berezia jarritz, aurrerantzean arazo handiagorik ez izateko.
- g) Ez-ohiko kasuetan Batzorde honek EKri proposamenak egin diezazkioke, berak erabaki ditzan.
- h) Urteko txostena egitea.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



Funtzionamendua

- Elkarbizitzako arazo bat honako egoera hauetan aztertzea onartuko da batzordean:

Jadanik honako urratsak eman eta, hala ere, elkarren arteko ulermenera iritsi gabeko gaiak aztertuko dira batzordean:

- . zuzenean edo zeharka tutorearekin zerikusia duen gaia bada, berarekin konpontzea komeni da.
- . Elkarren arteko ulermenera iristea posible izango ez balitz, tutoreak zikloko irakasle-taldearengana -edo jangelako arduradunarengana- jo dezake, eta honek, era berean, zuzendaritza-taldearengana, beharrezkoa iritzi gero.

- Informazioaren tratamendua

- . arazoa konpontzeko emandako urratsak eta aurkitutako zailtasunak deskribatzen dituen txosten bat eskatuko da.
- . Batzordekideek auzian zerikusia duten pertsonen intimitaterako duten eskubidea errespetatu beharko dute



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



13.2. Barne araudiko 7. atala

7. ELKARBIZITZARAKO ARAUAK

1.1. Ikaslea

Hezkuntza eta Irakaskuntza-jardueraren subjektu nagusia da ikaslea eta eginkizun horretara jotzen dute Hezkuntza-komunitate osoaren egitasmoek.

Ikasleen onarpena: Plazak banatzerakoan, kontuan hartuko da Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak une bakoitzean finkatzen dituen irizpideak. Ikastetxean sartzeko, Ikastolan dabilzan ikasleen senideek dute lehentasuna. Haienezako matrikulazio garaia lehenago izanen da, epe ofiziala ireki aurretik. Familia berrientzat, berriz, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak finkatzen duenean irekiko da.

Hiru urteko haurrek D ereduko bi gela osatuko dituzte. Batean ama-hizkuntza euskara dutenak sartuko dira; bestean, ama-hizkuntza gaztelania dutenak.

Beraz, sartzeko garaian, jatorrizko hizkuntza kontuan izanen da.

Edozein arrazoi dela eta, eskaeretan kasu berezi baten erabakia hartu beharko balitz, Errektore Batzarrean aurkeztu eta berak aztertu eta hartuko du erabaki hori.

Ikasleen kaleratzeak

Errektore Batzarraren iritziz eta zuzendariaren informean oinarriturik, akats oso larria baldin badago, Barne Arautegi honetako "Elkarbizitzaren Arauak" izeneko atalean arautzen denaren arabera. Gurasoek edo guraso-ordeek dituzten betebeharrak ekonomikoak betetzen ez dituztenean, arrazoirik eman gabe, edota, Errektore Batzarrak erabakita, onartezina baldin badago.

Ikaslearen funtzioak

Ikaslearen funtzioak zehazterakoan, bere alderdi indibiduala eta kolektiboa bereizten dira.

Ikasle bakoitzaren funtzio nagusiak hauexek dira:

1- Lehena eta nagusia, ikastea; horren ondorioz, ikaslea arduratuko da:

- Eskolako eta eskolaz kanpoko ekintzak ahal den ondoen betetzen,



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



ikastetxeak eskaintzen dizkion bitartekoen emaitzarik onenak lortzeko.

- Klaseetara etortzen eta ikasketa-planak garatzeko ekintzetan esku hartzen.
- Ikastetxearen jarduerak garatzeko onartutako egutegia eta ordutegia errespetatzen.
- Ikasketarako irakaslearen orientabideak eskatzen eta segitzen.
- Bere ikaskideek ikasketarako duten eskubidea errespetatzen, beraiekin elkarlanerako jarrera agertuz.

2-Ikastetxearen barruko elkarbizitzaren arauak bete-betean zaintzea; horrek zera eskatzen du:

- Hezkuntza komunitatearen kide guztien kontzientzi askatasuna errespetatzea, sinismenak, uste sendoak eta iritziak, eta aldi berean, bakoitzaren izena, begirunez hartuz.
- Ikastetxearen Hezkuntza proiektua, hau da, bere izaeraren definizio nagusia, bere helburuak eta egitura onartzea.
- Eraikuntza, instalazioak, ekipamendua eta materiala begirunez zaintzea.
- Ikastetxearen bizitzan eta funtzionamenduan parte hartzea.

DBHn

- Geletan bi ordezkari aukeratuko dituzte ikasleek.
- DBHko geletako ikasle ordezkariak hilero ikasketa-buru eta etapako koordinatzailearekin elkartuko dira. Horrez gain, ikasturtean zehar gai bereziren bat ikasleei baldin badagokie, DBHko bigarren zikloko ikasleak Juntako bilerara gonbidatuko dira.
- Betebehar eta eskubideei buruzko puntuok idazteko, EHAAn argitaratutako lege-dekretuan oinarritu gara.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



7.1.1 Ikasleen eskubideak eta betebeharrak

7.1.1.1. Ikasleen eskubideak

Ikasle guztiek oinarrizko eskubide eta betebeharrak beraiek dituzte, bakoitzaren adina eta ikasketa mailari dagokion neurrian. Eskubide eta betebeharrak Ikastolak ezarriak dituen hezkuntza helburuen inguruan gauzatuko dira. Hezkuntza komunitatearen partaide guztien eskubideen onarpenez eta begirunez erabiliko ditu ikasleak bere eskubideak. Ikastola ikaslearen kontzientzia askatasunaren begirunez arituko da beti eta onartuko dira, beraz, norberaren sinesmenak eta usteak; baina ikasleak ere begirunez onartu behar du Ikastolaren hezkuntza proiektua. Horretarako:

- Ikasleen ahalmen eta jarrera kritikoa indartuko du Ikastolak, kontzientzia-aukerak askatasunean egin ahal ditzan.
- Hezkuntza komunitateak onartua duen Hezkuntza Proiektuaren berri emanen die ikasleen gurasoei nahiz legezko tutoreei eta, adinaren arabera, baita ikasleei ere.
- Ikasle guztiek beren gaitasunak garatzeko aukera izanen dute irakaskuntzaren barruan.
- Ikasleak eskubidea du bere osotasun fisikoan eta duintasun moralean errespetatua izateko. Ez du bere duintasuna gutxiesten duen traturik jasoko.
- Ikastolak isilean mantenduko du bakoitzaren egoera pertsonal edo familiarri buruz jaso lezakeen informazioa, kontrakoa beharrezkoa ez baldin bada, behintzat.
- Ikastolak neurriak aztertu eta hartuko ditu, ikasleak segurtasun eta osasun-garbitasun giroan egon daitezen.
- Ez dute greba egiteko eskubiderik.

• **Ikaslearen eskubideak egoera berezietan**

Ikaslearen familiaren diru-urritasuna ez da ikasketak egiteko eragozpena izanen. Ikastolak ahal dituen baliabideak jarriko ditu, administrazioaren



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



laguntzak osatzeko. Ikasleari ezbehar edo gaixotasun luzea gertatzen zaionean, Ikastola saiatuko da ahal duen laguntza ematen, bere egoerari egokitutako plangintza berezia prestatuz eta behar duen materiala eta lan baliabideak eskainiz.

Integrazioko ikasleak izan gabe, irakaskuntza segitzeko beste arazoren bat dutenean, toki egokietara bideratuko ditu Ikastolak, beti ere zerbitzu hori eskaintzerik ez duenean.

- **Ikastaldearen partaidetza derrigorrezko bigarren hezkuntzan**

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek ikastetxearen funtzionamenduan parte hartzeko eskubidea dute, Barne Arautegi honetan zehazten denaren arabera. Partaidetza hori gelako Delegatuen bitartez emanen da.

- **Ordezkarien aukeraketa**

Gela bakoitzak bere ordezkaria eta ordezkariordea aukeratuko ditu, bozketa zuzen eta isilpekoaren bidez. Boto kopuru gehien atera duenak ordezkariaren kargua izanen du eta bigarren boto kopuru handiena izan duena, ordezkariordea. Zortzi ordezkarien artetik, Bigarren Zikloko bi aukeratuko dituzte, Errektore Batzarrera dagozkien gaiak lantzen direnean joan daitezten.

- **Ordezkarien funtzioak**

Hauk dira, besteak beste, ordezkarien funtzioak:

- Sor litezkeen arazoen aurrean, ikasle eta irakasleen arteko bitartekari izanen dira. Lehendabizi irakaslearengana joko dute, gero tutorearengana eta, ondoren, zuzendariarengana.
- Ikastolaren helburu nagusiak garatzeko ekimena hartzea eta beste sailletako ikasleekin ere ekintzak antolatzea edo aurrera eramaten laguntzea.
- Taldeko edo mailako ikasleen proposamenak jaso eta ordezkari bitartekarien bidez Zuzendaritza Taldean edo Errektore Batzarrean aurkeztuko dituzte. Bileraren eskaera astebete lehenago egin behar da.
- Aurkeztu nahi dituzten gaien txostenak eginen dituzte, beren ekimenez



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



prestatuz edota norbaitek eskatuz.

- Zuzendaritza Taldeak edota Errektore Batzarrak beharrezko baderitzete, bitartekariak dei litzakete, astebete lehenago deia eginda.
- Bilerotan hitz egindakoari buruzko informazioa gelako ikasleei jakinaraziko diete.

- **Ikastaldean nahiz ordezkarien bilerak**

Bi modutako deialdiak egin daitezke: **barneko arazoengatik** eta **kanpoko arazoengatik**.

- **Barneko arazoengatik**

Barne ekimenez batzarrerako deialdia ondoko egoeretan egin daiteke:

Gelako ordezkariak proposatua. Batzarrerako deialdia gelan gehiengo sinplez onartuko da ordezkariak helburu horrekin gelan –jolas-garaietan– eginen duten bileran.

Ikasle talde batek proposatua. Ikasleok beren gelan, jolas-garaietan, azalduko dute batzarrean agertu nahi duten gaia. Bozketan baiezkoa atera ezkerro, ordezkariak batzar-prozesua hasi dela esango diote Etapako Arduradunari.

Eztabaidatu beharreko gaia prestatuko dute ordezkariak. Debatea modu serio eta sakonean egin dadin, oso garrantzitsua da gaiari buruzko informazioa ahalik eta aberatsena eta zabalena izatea. Irizpideak bateratuko dituzte, gela guztietan gauza bera esateko. Informazio hori idatziz jasoko da.

Batzarrak eskola-orduetatik kanpo eginen dira, jolas-garaietan. Ikasleek denbora luzeagoa behar izanez gero, debatea klase-orduan ere luza lezakete.

Geletako ordezkarien ardura da debatea aurkeztu eta zuzentzea. Tutorea bertan egongo da (bera egon ezean, beste irakasleren bat), ordezkariak moderatzaile lanetan laguntzeko eta, era berean, bai informazioa eta bai debatea bera ere, ahalik eta zabalena eta objektiboen izan dadin lagunduz.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



o **Kanpoko arazoengatik**

Ikastetxeaz kanpoko arazoei dagokienean, deialdia kasu bakar batean egingen da, hots, legez onartutako bi erakundek gutxienez deitzen dutenean. Erakundeok honakoak dira:

a) Legezko alderdi politiko eta sindikatuak;

b) GKEak, KEM-MOC, eta abar;

c) Legearen barruan eraturako ikasleen erakunde, elkarte, federazio edota konfederazioak.

• **Ikasketak egiteko eta ebaluatuak izateko eskubidea**

Ikasleek eskubidea dute beren errendimendu eskolarra ebaluatua izateko, klaseetara etorri eta ikasketa-jardueretan parte hartzen duten neurrian.

Ikasleek eta gurasoek, ebaluaketaren argibideak eskatzeko eta kexa agertzeko eskubidea dute, bi gai hauei buruz denean:

o Ikasleari egindako froga ebaluatu nahi den gaiaren helburu, eduki eta mailari ez dagokionean.

o Erabakitako ebaluapen-irizpideen aplikazioa desegokia izateari buruz denean, eta ez irizpide beraiei buruz.

• **Ikaslearen eskola- eta lan-orientazioa**

Ikasleek eta gurasoek ikasketen jarraipenaz eta lanbideez informazioa jasotzeko eskubidea dute. Ardura berezia eskainiko zaie zailtasun fisiko edo psikikoak dituzten ikasleei edota giza edo kultur mailako eskaintza apalagoa jasotzen dutenei.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



7.1.1.2. Ikasleen betebeharrak

- **Ikaslea eta ikastolaren hezkuntza proiektua**

Ikastolaren Hezkuntza Proiektuaren arabera hezteko eskubidea duen bezala, ikaslea Herri Ametsa Ikastolako proiektuaren oinarri nagusien begirunez arituko da. Hezkuntza Komunitateak erabakitako Hezkuntza Proiektua ezagutzea bere eskubidea den bezala, bera errespetatzea izanen da bere betebeharrak nagusia.

- **Ikaslearen betebeharrak nagusiak**

Ikastolaren elkarbizitzarako arauak errespetatuko ditu beti ikasleak; printzipio horren arabera:

- Hezkuntza komunitatearen partaide guztien kontzientzia askatasuna, erlijio sinesmenak eta uste moralak errespetatuko ditu ikasleak eta, era berean, guztien duintasun, osotasun eta nortasunaren begirunez arituko da.
- Inork ez du besteen jatorria, sexua, maila soziala, adina edo beste ezaugarri pertsonal edo soziala aitzakiatzat harturik, inor diskriminatzeko edo mesprezuz tratatzeko eskubiderik.
- Ikastetxearen ondasun higigarriak eta higiezinak –gauzak eta instalazioak– errespetatu eta zuzenki erabiliko ditu ikasleak.

- **Ikaslea eta euskara**

Herri Ametsa Ikastola D ereduko ikastetxea denez, eta bizia euskaraz antolatua duenez, arlo eta harreman guztietan euskara erabiliko du ikasleak.

- **Ikaslea eta ikasketak**

Ikastea da ikasleen oinarrizko eginbeharra. Eginkizun horrek ikasketak duen garrantziaz jabetzea esan nahi du eta ondoko konpromiso hauek hartzen ditu, gutxienez, bere barruan:

- Klasera etorri eta ikasketak garatzeko antolatzen diren ekintzetan parte



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



hartzea.

- Ekintza horiek garatzeko erabakitako ordutegiak zaintzea.
- Irakasleriak erabakitako ikasketa-planak eta emandako orientabideak segitzea.
- Ikaskideak ikasteko duen eskubidea onartzea eta horretarako behar diren baldintzak errespetatzea.

7.3 Hutsegiteak, zigorrak eta prozedurazko bermeak

o Hutsegiteak

Neurriak erabakitzerakoan, oinarri nagusiok hartuko dira kontuan:

- Ikasleak eskolatua izateko eskubidea du 16 urte bete arte; eskubide hori ziurtatzeko erantzukizuna badu Ikastolak baina nagusiki gurasoek hartuko dute bere gain ardura hura.
- Ez da ikaslearen osotasun fisiko edo duintasun pertsonalaren aurkako zigorrik erabakiko.
- Hutsegitearen eta zigorraren arteko oreka zaindu beharko da beti.
- Ikasleari lagundu eta bere heziera hobetzeko helburuz pentsatuko dira neurriak, bere adina eta egoerari egokitzuz. Arazoari buruzko erabakia hartu behar dutenek diskrezio printzipioa bermatuko dute.

o Arau-hausteak

o Asistentzi faltak

Justifikatu gabeko ez-etortzeak, hiruhileko berean, jarraian doazen modura neurtuko dira:

- **Falta arina:** behin ez etortzea.
- **Falta larria:** bi aldiz ez etortzea.
- **Falta oso larria:** hiru aldiz ez etortzea.

Taldean eginiko asistentzi faltak oso larritzat joko dira eta banakako faltei gehituko zaizkie.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



o **Hutsegite arinak**

- Justifikatu gabe, bi aldiz garaiz ez etortzea. Justifikazioak idatziz nahiz telefonoz adieraziko zaizkio tutoreari.
- Ikastetxean edozein desegokiro tratatzea.
- Ikastetxearen jardunari nahiz garapenari kalte arina egin liezaiokeen edozein ekintza, bakarrik zein taldean egina.
- Ikastetxeko instalazio, material eta eskolako kideen gauzak nahita edo berariaz arinki hondatzea.
- Diziplinarik eza eta kideen aurkako irain eta eraso fisiko ez larriak eragitea.
- Tabakoa erretzea Ikastolako esparruan zein Ikastolak antolatutako ekintzetan.

o **Hutsegite larriak**

- Diziplinarik eza eta kideen nahiz ikastetxeko edozeinen aurkako irain edo laido eta eraso fisiko larriak eragitea.
- Ikastetxeko instalazio, material edo kideen gauzak larriki hondatzea oker erabiltzeagatik edo lapurtzea.
- Ikastetxearen jardunari nahiz garapenari kalte larria egin liezaiokeen edozein ekintza, bakarrik zein taldean egina
- Txostenak –edo Ikastolak nahiz gurasoek idatzitako beste edozein dokumentu- ebastea edo bertan izenpe faltsurik jartzea zein beste aldaketarik eragitea.
- Irakasleak, Errektore Batzarrak edo Zuzendaritza Taldeak hartutako erabakiak ez betetzea.
- Ikasturte berean bost huts arin egitea.

• **Hutsegite oso larriak**

- Diziplinarik eza eta kideen nahiz ikastetxeko edozeinen aurkako irain edo



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



laido eta eraso fisiko oso larriak eragitea.

- Besteen gauzak lapurtzea edo puskatzea eta ikastetxeko instalazio, material eta agirietan, hala nola kideen gauzetan, kalte larriak egitea intentzio osoz.

- Ikasturte berean hiru hutsegite larriak egitea.

- **Zigorrak**

Hutsegiteak maila ezberdinekoak izanik, hauek dira, erreferentzia gisa, ezar daitezkeen zigorrak:

- **Hutsegite arinengatik**

- Ahoz ohartzea egilea.

- Oharra gurasoei idatziz adieraziko zaie; kasu horretan, tutoreak jatorrizko ohar izenpetua gordeko du.

- Dagokionean, ikasgelatik kanporatzea.

- Instalazioetan, materialean-eta, kaltea egin denean, hondamen hori ordaintzea, edota ordaintzeko ordezkotzat, eskola-orduz kanpo garbitzea, lan edo jarduera bereziak eginez.

- **Hutsegite larriengatik**

- Maiz etorri ez eta ez etortzeak justifikatzen ez dituenean, ohartaraziko zaie ikasle eta gurasoei eta bere espedientean idatziko du tutoreak.

- Dagokionean, ikasgelatik kanporatzea eta gurasoei adieraztea.

- Instalazioetan, materialean eta abar kaltea egin denean, hondamen hori ordaintzea edota ordaindu ahal izateko eskola-orduz kanpo garbiketa, lan edo jarduera bereziak egitea.

- Egun baterako etxeratzea.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



- **Hutsegite oso larriengatik**

- Segidako ebaluazioa egiteko eskubidea galtzea ikasturte horretan. Ikasleak ikastetxeak ezartzen dizkion froga bereziak eginen ditu
- Instalazioetan, materialean eta abar kaltea egin denean, hondamen hori ordaintzea edota ordaindu ahal izateko eskola-orduz kanpo garbiketa, lan edo jarduera bereziak egitea.
- Eskola-egun batetik zazpita bitarteko etxeratzea; horrek ez dio, ordea, etengabeko ebaluazioa eta etxeko edo bestelako lanak egitea eragotziko.
- Ikasturte hori amaitu bitartean etxera bidaltzea, ikastetxera etortzea eragotzita. Hurrengo ikasturtean ikastetxean berriz onartua izan liteke, gurasoek eskatuta eta ikaslearen jarrera aldatuz gero. Erabaki hori Zuzendaritzak hartu eta Errektore Batzarrak onetsiko du. Berronartzea baldintzapean jar daiteke, baldintza bereziak eta epe bat finkatuz; kasu horretan, idatzirik eman eta ikasleak eta gurasoek izenpetu beharko dute.

Hutsegite arinen, larrien eta oso larrien erregistroa eramango da eta, beharra balego, espedientea ireki liteke.

- **Zigorra neurtzearen ondorioetarako, inguruabar aringarritzat hartuko dira**

- Hutsegitea borondatez aitortzea.
- Lehenagotik zigortua ez izatea.
- Material edo ondasun higikor zein higiezina kaltetu ezker, espedienteari ebazpena eman aurretik, kalte horiek ikastorduez kanpo konpontzea.
 - Irainik nahiz laidorik egin ezker, taldearen aurrean barkamena eskatzea.
 - Hainbesteko gaitz, min edo kalterik sortu nahi ez izatea.

- **Zigorra neurtzearen ondorioetarako, inguruabar larrigarritzat hartuko dira:**



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



- Lapurtzea, iraina, laidoa edo erasoak adin txikiko bati edota Ikastolara etorri berri bati egitea.
- Berriaz egin denean, alde aurretik adostua edo aurre-asmoa izatea.
- Taldeko hutsegitera bultzatzea.
- Eskolako ordezkapen-karguez baliatzea.
- Zigorra neurtzerakoan eta mailakatzerakoan inguruabar aringarri eta astungarri bat edo gehiago hartuko dira kontuan, zigorraren neurria eta maila igo edo gutxitzeko.
- Zuzendaritza taldeak, tutoreak edo zerbitzu bakoitzeko arduradunak zigorraren iraupena gutxitu edo deusezta dezake, baldin hutsa egin duen ikaslearen jarreran aldaketa baikorrik antzematen bada.
- Hutsegitea eskola-eremutik kanpo egitea ez da eragozpen izanzen arautegi hau aplikatzeko, ikastetxeak programaturiko ekintza eta eskolaz kanpoko garaian edo jantoki edo garraio zerbitzuan gauzatzen bada arau-haustea; halaber, eskolako jardunarekin kausa-efektu erlaziorik nabari bada.
- **Jardunbide-bermeak**
- Ezingo da inoiz zigorrik ezarri behar den prozedura bideratu gabe.
- Aurretik espedientearen instrukzioa egin gabe ezingo da huts oso larriengatiko zigorrik ezarri.
- Entzute-tramitea salbu, aurretiko instrukzioa ez da beharrezkoa izanzen huts arinengatiko zigorrak ezartzeko.
- Ikasleen arau-hauste ez diren jokaerak irakasleek zuzendu beharko dituzte, beti ere eginkorrak, hezitzaileak, eta oinarrizko eskubideak kendu edo kaltetzeko modukoak ez diren metodo egokiak baliatuz. Nolanahi ere, zuzenketa horiek Arautegi honetan arautuak baino arinagoak izanzen dira.
- **Zigorren ezarpenerako instantzia**
- Huts arinak irakasleak, tutoreak edo zerbitzuetako langileak zigortuko ditu.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



- Huts larriak Etapako Klaustroak edo Zerbitzuetako Taldeak zigortuko ditu eta zuzendariaren sinadura beharko du.
- Huts oso larriak Zuzendaritza Taldeak edo Errektore Batzarrak zigortuko ditu.
- Hutsa larria edo oso larria bada gurasoak eta tutoreak jakinaren gainean jarriko dira egindakoaz eta ezarritako zigorrak.

• **Diziplina-espedientea**

- Huts oso larria denean, diziplina-espedientea osatuko du zuzendariak, bai bere ekimenez, bai Etapako Klaustroak, bai Zerbitzu bakoitzeko Taldeak, bai Zuzendaritza Taldeak eta baita Errektore Batzarrak ere proposatuta, beti ere behar bezala informatu ondoren.
- Espedientea irekitzeko eskatu duenak inguruabarririk dagoela ikusiko balu, Zuzendaritza taldeak edo Errektore Batzarrak espedientea artxibatzeko gaitasuna izanen luke.
- Ekintza bat huts larritzat jotzen bada, huts hori zigortzeko eskumena duenari jakinaraziko zaio.

• **Espedientearen bideratzea**

- Espedientearen instrukzioa Zuzendaritza Taldeak edo Errektore Batzarrak proposaturiko bideratzaile batek gauzatuko du.
- Ikasleek edo guraso edo tutoreek bideratzailea ezetsi dezakete, bere jokaera edo adierazpenetan objektibotasunetik eza antzematen badute.
- Ahalik eta denbora laburrenean bideratuko da espedientea: zigorgarritzat jotako ekintzaren ezagutza izaten denetik hamar egunean buruan gehienez.
- Espedientea osatu ondoren, ikasleari eta, adin txikikoa izanez gero guraso edo tutoreei, egozten zaizkion huts eta Zuzendaritza Taldeari edo Errektore Batzarrari bidaltzen zaion zigor-proposamena jakinaraztean, hitz egiteko aukera emanen zaio.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



- Espedientea zazpi egunetako epean bideratuko da.

- **Espedientearen ebazpena**

- Hasiera-egunetik hasita, gehienez hilabeteko epean gauzatu behar da espedientearen ebazpena.

Ebazpenak beti ere arrazoitu beharko ditu bideratzaileak, hauexek kontuan izanda: ikasleari egozten zaizkion gertakariak, zigor-eraketa oinarritzen deneko legea, inguruabar astungarri eta aringarriak, zigorraren edukia, zein egunetatik aurrera beteko den, neurri haren aurkako helegitea zein organori aurkez dakioken eta helegitea jartzeko epea.

7.1.3. Eguneroko funtzionamendurako arautegia

- **Sarrera-irteerak**

- Bertaratzea eta garaiz iristea.
- Sarrera-irteeretan, ikasleek eta irakasleek agurtu behar dute.
- Klaseetara joatea derrigorrezkoa da.
- Txirrinak jo ondoren, denbora galdu gabe, gelan sartu behar da eta berriro jo arte, ez dago irteterik: ahal bada, eskolen aurreko eta ondoko denborak eta jolas-garaiak aprobetxa bitez komunera joateko.
- Berandu iristen den ikasleak arrazoia argituko du.
- Ikasle kanporatua bere ikasgelako atearen ondoan isilik egonen da, oztoporik sortu gabe.
- Irakasleak horren berri ahalik eta azkarren tutoreari emanen dio eta berak gurasoei.

- **Korridoreak**

- Arkupean poliki eta lasai ibili behar da.
- Baloiak, patinak... eskuan eraman behar dira.
- Korridore eta eskaileretan egokiro joan behar da, bultzaka eta lasterka ibili



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



gabe.

- Helduei eta beharra duen edozeini pasatzen utzi behar zaie.
- Eskaileretan beti eskuinetik ibili behar da.
- Klasean daudenak ez dira oztopatu behar.

- **Gelak**

Ikasgela

- **Haur Hezkuntza**

- Ikasleek zein irakasleek apal hitz egin behar dute.
- Biribilean jartzean eta lanean, zenbaitetan, isiltasun uneak lortu behar dira. Gauzak jaso eta materiala zaintzen ikasi behar dute.
- Txokoetako gauzak errespetatu eta zaindu behar dira.
- Mahaiak, aulkiak... behar den bezala erabili. Ez daiteke mahai gainean ibil.
- **Aulkiekin jolas daiteke, baina saltorik egin gabe. Min hartzeko arriskua dagoen egoeretan ibiltzea galaraziko zaie.**
- Mahai eta aulkietan ezin dute margotu. Gela barruan ezin da jan (txikleak bereziki).
- Baloia, soka, goma... kanpoan bakarrik erabil daitezke. Gelan joko lasaiak onartuko dira (korrikarik eta zaratarik gabeak, alegia).

- **Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza**

- Gelako materiala egoki zaindu behar da: mahaiak, aulkiak, hormak, arbela, atek, apalak, berogailuak, leihoak, gortinak, pertsianak, ...
- Material komuna zaindu eta egokiro erabili behar da.
- Gelatik irteterakoan, argia itzali behar da.
- Mahaietan ezin da idatzi; mugitu behar badira, arrastaka eraman gabe izan bedi.
- Liburuak ezin dira zoruan utzi: behar ez direnak apaletan utziko dira. Bizkarzakuak, erraketak- -eta, berriz, esekitokien azpian utziko dira.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



- Apalek txukun eta ordenaturik egon behar dute.
 - Klaseak hasi aurretik, liburuak prest eduki behar dira.
 - Jolas-tokira nahiz gelara joan aurretik, gauzak jasota utzi behar dira.
 - Gelan ezin da jan.
 - Hitz egiteko, eskua jaso behar da; halaber, txandak errespetatu eta besteek esanak begirunez entzun.
 - Era egokian eseri behar da.
 - Lan egiteko, gelan isiltasuna gordetzea nahitaezkoa da.
 - Irakaslea adierazpenen bat ematen ari denean, ezin da inor altxatu.
-
- **Gimnasioa**
 - Bakoitzak bere gelan eserita egon behar du, Gorputz Hezkuntzako irakaslea joan arte.
 - Gelatik gimnasia poliki eta isilik joan behar da.
 - Gimnasioan sartu eta aulkietan eseri behar da, lehen adierazpenak entzuteko prest.
 - Gimnasioko materiala zaindu eta errespetatu behar da.
 - Saioa bukatutakoan, materiala jasota utzi behar da; gauza bera eskolaz kanpoko jardueretan ere.
 - Gimnasiotik, frontoitik edo saioa ematen ari den lekutik ezin da inor atera irakaslearen baimenik gabe.
 - Aldagela eta dutxetan ezin da oihuka ibili.
 - Materiala hondatzen duenak konpondu edo berria erosi beharko du.
-
- **Plastika-gelak**
 - Irakaslea iritsi bitartean, gelan eserita egon behar da.
 - Hara isilik joan behar da, bai eta itzuli ere.
 - Ahapetik hitz egin behar da.
 - Norberak aukeratuko du eserlekua; baina, klase horretan, eserleku bakarra



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



horixe izanen du.

- Nor bere lekuaren garbitasunaz arduratuko da.
 - Ikasleak ezin dira DBHko Plastika-gelako biltokian sartu.
 - Bakoitzaren ardura da materiala zaintzea.
 - Lanak ordenaturik gorde behar dira apaletan eta gero, mahaia jaso eta garbitu. Horren ondoren, aulkiak mahai gainean jarriko dira.
 - Materialarekin ezin da jolastu.
 - Apaletan dauden lanak kontuz erabili eta zainduko dira.
 - Irakaslearen baimenik gabe, ezin da inor gelatik atera.
 - Materiala hondatzen duenak berria erosi edo konpondu beharko du.
 - Musika tresna irakasleak soilik erabiliko du.
-
- **Musika-gela**
 - Ez da Musika-gelara jatekorik eramanen.
 - Ez daiteke eserlekuen gainetik ibil.
 - Musika-tresnak behar den une eta lekuan joko dira.
 - Beti behar den materialarekin eramanda behar da: fitxak, zorroa, musika-tresnak...
 - Ikasgelatik Musika-gelara joatean eta handik itzultzean, isilik joan behar da
 - Musika-gelako materiala eta tresneria zaindu behar da.
-
- **Liburutegia**
 - Liburutegian isilik egon behar da.
 - Liburutegia irakurtzeko, kontsultarako nahiz bakarkako lanak egiteko erabili daiteke.
 - Ez daiteke bertan jan.
 - Liburuak ondo zaindu behar dira: horretarako, ez idatzi deus barnean, ezta azpimarratu ere.
 - Apaletik liburu bat hartzean, kontuan hartu non zegoen, gero hantxe uzteko.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



- **Laborategia**

- Gelatik laborategira isilik eta ordenan joan behar da, irakaslearen atzetik. Gauza bera eginen da itzultzean, irakaslea atzetik joan arren.
- Baimenik gabe, ez daiteke komunera joan.
- Laborategian talde bakoitza mahai batean egongo da, alde batetik bestera mugitu gabe.
- Irakaslearen beharra izanez gero, eskua altxatuz deituko zaio.
- Ahapetik hitz eginen da.
- Materiala zaindu behar da.
- Erabilera desegokiagatik zerbait hausten duenak ordaindu edo berria erosi beharko du.
- Irakasleak esandako arauak bete behar dira.
- Praktika bukatu ondoren, mahaia eta materiala garbia utzi behar dira.

- **Jolas-lekuak**

- **Haur Hezkuntzako ikasleen parkea**

- Zakarra zakarrontzira bota behar da.
- Hesiak errespetatu behar dira.
- Baloia astean hiru egunetan bakarrik jaits daiteke.
- Ikasleak ez daitezke hesitik kanpo baloiaren bila joan: zaintzaileak joanen dira bila, ordea.
- Parke hartara binaka jaitsiko dira ikasleak, beti ere, taldea irakasle bat ondoan duela.

- **Ganbara**

- **Txabolako teilatura ez da igo behar.**
- Ez daiteke baloiarekin jolas.
- Bertan dauden jostailuak –blokeak– ezin dira jaurti.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



○ **Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza**

- Jolaslekuak garbi mantendu behar dira.
- Arkupean ez dago baloiaz jolasterik, ezta pilotalekuan futbolean ere.
- Edozein arrazoi dela kausa, DBH eta LHko ikasleak jolas-garaietan elkartuko balira (adibidez, DBHkoek 11:00etan Gorputz Hezkuntzako eskola dutelako kanpoan), lehenetasuna izanen du beti jolas-garaia duen taldeak.
- Erdiko zelaian, futbola ez den beste edozein kirolek du lehenetasuna.
- Ikasleak ez dira inoiz gelaren barruan geratuko, salbuespenotan izan ezik:
 - irakasleren batekin hizketan ari direlako;
 - b) tutorearen baimena dutelako;
 - c) zigortuta daudelako.

Eguraldi txarra egiten duenean ere ez da inor korridoreetan egongo.

- Arazoren bat gertatu bada, zaintzaileek tutoreak informatuko dituzte.
- Ez dago patinetea ekartzerik ikastolara.

○ **Komunak**

- Denon onerako, komunak garbi mantentzen saiatu behar dugu eta garbiketa kontuotarako eta ura edateko soilik erabili.
- Urarekin ezin da jolastu eta iturriak ondo itxi behar dira.
- Komuna erabilitakoan, tanga hustu behar da.
- Ahal bada, ez bedi inor eskola-garaian joan komunera.

• **Irteerak**

- Irakasleen esana beteko da.
- Baimenik gabe, ezin da inor taldetik aldentu.
- Elkarren arteko errespetuz eta begirunez jokatu da.
- Ikustaldietan (museoak, lantegiak...), bertako arduradunen orientabide eta arauak zehatz-mehatz bete behar dira.
- Nor bere gauzez arduratuko da.
- Erabiltzen den lekua zegoen bezala utziko da, txukun eta garbi.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



- Natura zaindu eta errespetatu behar da.
- Leku arriskutsuetan ez da inor ibiliko.
- Ikastolako irteera-egunak eskola-egunak direnez, ikasle guztiek joan behar dute, non eta arrazoi justifikaturen bat ez den.
- Dirua eraman eta erabiltzen jakitea hezigarria da, baina egoki deritzagu mugak jarri eta beraiek errespetatzeari.

• **Jangela eta autobusa**

Jangelarako eta autobusetarako dagoen arautegia beteko da.

• **Jarrerak**

• **Irakasleekiko**

- Tutorearekin nahiz edozein irakaslerekin errespetuz jokatu behar da eta haien esanetara egon. Beste horrenbeste egingen da, noski, ordezkapenak zein praktikak egiten diharduten irakasleekin.
- Oro har, arazo baten aurrean, tutoreengana jo behar da, non eta beste irakasle baten gelako gauza zehatz bat ez den. Hori aski ez balitz, etapako koordinatzailearengana edo, behar izanez gero, zuzendariarengana jo liteke.

• **Zerbitzuetako arduradunekiko**

- Beste irakasleenganako jarrera beraz jokatuko da: begirunez eta zintzotasunez, alegia. Ardura eta autoritatea errespetatuko zaie, laguntzeko daudelako, azken finean.
- Edozein arduraduni zerbait eskatu, galdetu, nahiz adierazi nahi zaionean, begirunez eta hezieraz mintzatuko zaio.

• **Ikaskideekiko**

- Lagun hurkoa errespetatu behar da beti: inor ez da besteak baino gehiago, ezta gutxiago ere.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



- Denok eskubide berak ditugu.
- Onartezina da indarrak baliatzea: arazoak ez baitira elkar joz zein irainduz konpontzen.
- Handiagoa nahiz zaharragoa izateagatik, ez dut inola ere txikiak baino eskubide gehiago.
- Arrazoia duenari ematen saiatu.
- Istiluen aurrean, haiek indartu beharrean, bakeak egiten ahalegindu.
- Benetako adiskide eta ikaskideak laguntzeko prest egon behar du.
- Ondo jakin gabe, ez errudunik izendatu.
- Iritzi ezberdinak patxadaz eztabaidatzen saiatu, hori baita konponbidearen iturri.
- Besteen iritziak entzun, aintzakotzat hartu eta errespetatu, nahiz eta gureen ezberdinak izan.
- Haserreak ez digu modu desegokian hitz egiteko eskubiderik ematen.
- Eguneroko bizitza, atsegina egiten laguntzen duten detaile xeheak zaindu: eskerrak eman, barkamena eskatu...
- **Ikasketekiko**
- Ikasketen balioaz jabetu; izan ere, ikasketek, interes eta jakin-minei erantzun, bizitzarako baliabideak eskaini eta aberastu egiten gaituzte. Beraz, ardura eta iraunkortasunez hartu behar dira, nahiz atsegina nahiz neketsu gertatu.
- Gelan lan giro egokia eta jatorra sortzen saiatu behar da.
- Ordena beharrezkoa da gelaren martxa onerako, bai bakoitzaren kontuetarako, bai guztionetarako.
- Besteen lana ezin da oztopatu lan pertsonalerako derrigorrezkoa baita isiltasuna mantentzea.
- Talde lanetan betetzeko zenbait aholku eta arau: parte hartu, elkar lagundu, iritziak errespetatu, ez haserretu eta kontsentsua bilatu.. Hitz



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



egiterakoan, txanda errespetatu behar da.

- Besteen lorpenak ere baloratu behar dira.
- **Informazio-kartelei buruzko arautegia**
- Kartelak ikastolako partaideek soilik jarri ahal izanen dituzte.
- Horretarako bereziki gela eta pasilloetan jarrita dauden ohar-tauletan ipini beharko dira.
- Eduki politiko edota ohiko ikaskuntza-irakaskuntza prozeduraz kanpokoak horretarako berariaz jarritako lekuetan ipiniko dira eta inoiz ez gelaren barruan.
- Ez da informazio anonimorik onartuko. Kartelek izenpeturik joan behar dute eta beren egileek zuzendariari edukiaren berri emanen diote. Haiek arduratuko dira jartzeaz zein kentzeaz.
- Ohar-tauletan dauden beste kartelak errespetatuko dira. Horretarako, kartelaren neurria eta agerian daraman denbora kontuan hartuko dira. Kartelari data jarriko zaio, eta astebete baino gehiago ez egotea gomendatzen da.
- Ez da onartuko kartel eta informazio berak ohar-taula batean baino gehiagotan jartzea.
- **Ekintza osagarriei buruzko arauak**
- Edozein ikaslek aukera dezake bertan antolatzen diren ekintza osagarrietan parte hartzea; ikastetxea ahaleginduko da bakoitzaren aukerari erantzuten.
- Gurasoek eska dezakete antolaturik ez dagoen beste ekintzaren bat antolatzea; ikastetxea saiatuko da eratzen, ekintza osagarria izan, partaideak nahikoak eta posible baldin bada behintzat.
- Behin izena eman eta gero, bertaratzeko eskatuko zaio partaideari, bai entrenamenduetara, baita aste bukaerako lehiaketetara ere.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



- Jardunotan euskaraz hitz eginen dute, bai eta kanpoko partiduetan ere.
- Jokalariak epaileen erabakiak errespetatuko dituzte eta entrenatzaileak argibideak modu onean eskatuko ditu; behar baldin bada, kiroleko arduradunari azaldu eta erreklamazio ofiziala eginen du ikastetxeak.
- Ikastolak jarritako monitoreak tratu ona emanen die taldekoei, euskaraz hitz eginen die eta hitz egitea eskatuko eta garaiz emanen die abisua. Berea da partida noiz eta non diren jakinarazteko ardura eta nola joango diren erabakitzekoa ere.
- Ingelesa eta musika ikasten ari diren ikasleek klaseotarako erabiltzen diren geletako materiala zainduko dute. Eguerdiko eskola-orduetan ez da beste inor etxe barruan sartuko.
- **Dantzako barne-arautegia**
- Ekintza hori Kultur Batzordearen barnean eta haren menpe dago, eguneroko funtzionamendua autonomoa izan arren.
- Euskal dantza teoriarik eta praktikan jakitea helburu nagusia da. Euskal kulturaren arlo bat denez, Ikastolaren helburuetako bat betetzen du.
- Partaideak: Ikasleak: 6-16 urte bitarteko neska-mutil guztiek parte har dezakete. Betebeharrak hauexek dira:
 1. Kurtso osorako konpromisoa hartzea.
 2. Sortzen diren ekitaldietara joatea,
 3. Erabilitako jantziak behar bezala zaindu eta itzultzea, eta
 4. Ikastolak jarritako kuota ordaintzea.
- **Irakasleak: Monitoreek baldintza hauek bete behar dituzte:**
 1. Euskalduna izan,
 2. Gaietan jantzita egon, eta
 3. Hurrekiko jarrera egokia izan.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



Betebeharrak

- Klaseetara garaiz joan.
- Bakoitzaren taldea kontrolatu.
- Ekitaldietan taldeaz arduratu.
- Finkaturiko programa aurrera eraman.
- Arduradunarekin harremanetan egon.
- Lanaren truke, soldata bat jasoko dute.

Bidaietarako eta irteeretarako arautegia

- **Ikasketa amaierako bidaia**
 - DBH 4. mailako ikasleekin egin ohi da.
 - Eskola-egunetan antolatzen da.
 - Bost egunera mugatuko da.
 - Bidaia egin aurretik, gurasoek bidaiaren programa eta araudia jasoko dute idatziz; onartu eta izenpetu ondoren, tutoreari itzuliko diote.
 - Bidaiara ez doazen ikasleak etxean geratuko dira, klasera etorri gabe.
 - Bidaiak eduki kulturalak bete behar ditu.
 - Ahalik eta egitarau atsegina antolatzen denez, ekintzetan denek esku hartu behar dute.
 - Irakasleen baimenik gabe, ez dago taldetik aldentzerik.
 - Ordutegia errespetatu behar da, irteera-sarrera orduak, otorduak...
 - Gauean ezin da zaratarik egin.
 - Den-dena (instalazioak, logela, jangela...) ongi zaindu eta mantendu behar dira; gauzak horrela, zerbait hondatu edo hausten duenak konpondu zein haren balioa ordaindu beharko du.
 - Ezin da edari alkoholdunik hartu.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



- Autobusean eserita joan behar da.
 - Bakoitzak bere gauzez arduratu behar du.
 - Ikastolako irakasle eta tokian tokiko monitoreen aginduak bete beharko dira.
 - Elkarbizitza arauak ez betetzeagatik, ikasleren batek jokabide txarra agertuz gero, irakasleek gurasoak jakinaren gainean jarriko dituzte eta, hortik aurrera, haiek izanen dira arduradun bakarrak.
 - Diru asko eramatea ez da egokia.
 - Jarrera txarra duen ikasleak hurrengo irteerara joateko eskubidea galduko du.
- **Irteerak eta elkarbizitza**
- Egun batekoak edo bikoak izan daitezke.
 - Kurtso hasieran gurasoei irteera programa aurkeztuko zaie beren baimen idatzia eman dezaten. Programa horrek Errektore Batzarreko oniritzia jasoko du.
 - Helburu akademikoa duenean, bere antolaketa eta ardura gai hori ematen duen irakaslearena izanen da. Beste gainontzeko irteerak tutoreek antolatuko dituzte.
 - Ikasleak joan behar du, kontrako arrazoi larririk ez badu.
 - Hezkuntza helburu batekin antolatuko dira eta denbora osoa programatuko da. Lekua aukeratzerakoan, zein programa eskaintzen den kontuan hartuko da.
 - Hogeita bost ikasleko, irakasle bat joango da. Ratio hori haur integratu bat doanean handitu egingen da.
 - Irteeretako arauak ikasketa amaierakoan berak izanen dira.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



- **Zerbitzuen erabilera arautzeko arautegia**
 - **Autobusen erabilera**
 - Ikasleak beti dagokion autobusa erabiliko du. Zaintzaileak erabaki dezake eserleku finkoak jartzea, egokiagoa baderitzo.
 - Zerbait hautsiz gero, ikaslea izanen da erantzule eta berak ordaindu beharko du kaltea.
 - Gidariarekin arazoren bat gertatzen bada, harengana jo beharrean, ikasleak bere zaintzaileari esango dio.
 - Ibilbide osoan eserita joan behar da, aukietako besoetan eserita joan gabe.
 - Autobusean ez dago erretzerik edo jaterik.
 - Errespetuz hartuko dituzte ikasle zaharrenek gazteenak; ez da onartuko eserlekutik altxaraztea edo beraiekin hika-mikan hastea.
 - Ikasle bakoitzak bere ohizko plaza eta ordutegia dauka garraioan. Beraz, ordutegi horretatik kanpo autobusa erabili ahal izanen du, lekurik baldin badago.

- **Jantokiaren erabilera**
 - Jangelara banaka eta ordenan sartu behar da.
 - Gauzak behar izanez gero, ikasleak ez dira altxatuko, eskatu baizik.
 - Euskaraz hitz egin behar da.
 - Esanak bete behar dira.
 - Erretiluak txukun eta ordenan jaso behar dira. Hasieran, txikiei jaso egingen zaizkie.
 - Lurrera ez da ezer bota behar.
 - Erabat debekatuta dago batak besteari ezer botatzea.
 - Bazkaltzean isiltasun osoa eskatzen ez bada ere, garrasirik ez egiten ahalegindu behar da.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



7.2. Langileei dagozkien eskubide eta betebeharrak

▪ **Langileen kontratazioa eta atxikipena**

Lan Hitzarmenak dioenaren arabera, batzorde parekidea antolatuko da langileak aukeratzeko. Bost lagunek osatuko dute batzordea:

- Errektore Kontseiluko gurasoen bi ordezkari;
- Beste bi langile: langileen ordezkariarekin batera, etapako koordinatzailea —irakaslegaiak kontratatze—, eta administrazio burua —bestelako langileak kontratatze—;

- Zuzendariak ahotsa izanen du, aholkulari gisan, baina botorik ez.

Batzorde parekideak aukeratuko du langilea Lan Hitzarmenak ezarritako irizpideak eta bete beharreko profilari dagozkionak baloratuz eta aplikatuz.

▪ **Irakasleen atxikipena**

Irakaslea zein etapa, ziklo, maila edo arlori atxikitzen zaion erabakitzeke, nagusiki espezializazioari, eskarmentuari eta gaitasunari eta mailaz aldatzeko irizpideei begiratu behar zaie. Aurreko irizpideak aplikatu eta gero, Ikastolan, etapan edo zikloan eramandako urteak kontuan hartuko dira halaber. Dena den, ikastetxearen beharra izanen da irizpide nagusia.

Lan-esleipena zuzendariari dagokio.

▪ **Irakaslearen eskubideak**

Eskubideok bi arlotan daude:

1. Kudeaketa edo funtzionamendu orokorraren arloan:

- Ikastetxearen bizitzan esku hartzeko, horretarako eratuak diren



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



organoen bitartez.

- Ikastolaren gai eta arazoei buruzko informazioa jasotzeko.
- Legezko baldintzak betez gero, irakasleen eskuduntzako Ikastolako kargu guztietarako aukeratzailer eta aukeratu izateko.

2. Hezkuntza Irakaskuntza arloan:

- "Katedra askatasun" eskubidea du, hau da, metodologia, edukiak eta helburuak aukeratzeko. Ikastetxearen Curriculum Proiektuan ezarritako ildoak izanen du muga.
- Ikastetxeak errespetatuko du bakoitzak duen kontzientziaskatasun eskubidea, hura gai izan daitekeen arazo eta ekintzetan. Ez dio, beraz, inposatuko norberaren kontzientziaren aurka dagoen ezer egitea.
- Maila edo arloko esleipenerako bere nahiak, eskarmentua eta gaitasunak zuzendariari aurkezteko.
- Aukeratu den mailan bere lana betetzeko eskubidea izanen du, baldin eta leku horretan dagoen irakasleak 5 urte bete baditu, edo ziklo osoa bi aldiz egin badu. Zuzendaritzak lanpostu horretarako egokitasuna aitortzen badio beteko da eskubide hori.
- Irakasleak Ikastolaren laguntza izanen du birziklatzeko. Ikastetxeak denbora eta bitartekoak eskainiko dizkio, eskolak berak bereziki eskatutako ikastaldian esku hartzen badu. Matrikula ordain lekiok, ikastaroak irakaslearen ikastetxeko lanarekin zerikusizuzena izanez gero; beste kasuetan, irakaslearen ardura izanen da.
- Irakasleak eskubidea du berari buruz beste irakasle-kideek dakitena diskrezioz erabilia izan dadin, ikasle edo gurasoekin edozein gatazka saihestuz eta arazoa dagokion bidetik eraman dadin.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



▪ **Instalazioak eta zerbitzuak**

Ikastolako instalazioak, altzariak, materiala eta zerbitzuak –garraioa, jangela– erabil ditzake irakasleak, ondoko baldintza hauekin:

- Ikastolarekiko gaia edo ekintza garatzeko denean.
- Beste gaietarako, zuzendariaren baimena hartuz gero. Sor litezkeen gastuak bere eginen ditu irakasleak.
- Irakaskuntza alorreko euskarri administratiboa izanen du irakasleak, beti ere sail horretako langileen gainontzeko ardurak kontuan izanik, finkatutako orduetan eta ahal dela bi egun aurretik adierazita, batez ere lan handi samarrak direnean.
- Ikastetxeak irakasleen garraioa antolatzeke beharrik ez badu ere, etxetik Ikastolarako eta handik etxeraino garraioa erabil daiteke, lekurik baldin badago.
- Jangela ere erabil daiteke, janariaren kostea ordainduta eta janaria hartzeko diren arauak betez gero.
- Euskal kulturarekin edota irakaskuntzarekin zerikusia duten bilerak egitea onartuko da, kontrakorik ez badago eta sor litezkeen gastuak bere eginez gero.

▪ **Lan-eskubidea**

Irakasleen eta beste langileen lan-eskubideak lege zehaztuta daude, Langileen Estatutua oinarritzko legean eta beste ordenantza orokorretan. Eskubide horiek era zehatzagoan definitzen dira Ikastoletako Lan Hitzarmenean. Ikastetxeak osoki errespetatuko ditu dokumentu horietan arautzen diren eskubideak.

▪ **Irakaslearen betebeharrak**

Irakasleari zor zaion hezkuntza-irakaskuntza jarduera da irakaslearen betebeharr nagusia; zehazki:



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



- Ikastolara eta gelara garaiz iristea, ikasleek sartu behar dutenerako; irteerak ere finkatutako orduetan egitea.
- Ikasleak bere kargura diren une guztietan zaintzea. Atentzio berezia izanen du irteeretan, jolas-garai edo etxearen barruko ordena zaintzen.
- Ikastorduak prestatzea eta klaseak ahal den era egokienean ematea; aldez aurretik jakinda ez etortzean, ordezeko irakasleari lana prestatu uztea.
- Etxea, instalazioak eta materiala ikasleek zain ditzaten saiatzea:
- Gelako ateak itxiko ditu jolas-garai eta eguerdiko irteera-orduetan.
- Eguneko azken orduan, aulki guztiak jasoaraziko dizkie ikasleei. Irakaslea bera aterako da azken.
- Hondatutako materialaren kontuak eskatuko ditu.
- **Ikasleen asistentzia, garaiz iristen direla eta klaseko jokabidea ohituraz kontrolatzea eta horren berri tutoreei ematea.**
- Klaseko diziplina giroa mantentzea eta Ikastolaren diziplina orokorra mantentzen laguntzea:
 - Ikasleen sarrera-irteerak zainduz.
 - Ordutegi orokorra eta klase orduetako osoki eta puntualki beteaz.
 - Ikasleak aktiboki edukiaz.
- Irakaslea ez da gelatik aterako ikasleak bakarrik utziaz, kanpoko bisitak jaso edo barruko beste arazoren bat konpontzeko, ez bada beharrezkoa. Ikaslea zigortu eta gelan utziz gero, irakaslea horren arduraduna izanen da.
- Ez ditu ikasleak ateratzen utziko ere, komunera edo beste eginkizun batetarako, gai larria izan edota baimen berezirik ez baldin



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



badu.

- Ikasleak ikastetxetik irten behar badu, irakasleak horren berri adieraziko dio dagokionari.
- Ikasleen ebaluazioa, orientazioa eta tutore-funtzioak betetzea eta haien dokumentazio akademikoa eguneratua eramatea.
- Batez ere, ikaslearen ideiak eta usteak errespetatzea eta bere duintasuna begirune handiz zaintzea; elkarbizitzarako errespetu eta tolerantziaren eredu azaltzen saiatzea.
- Ikaslearen osotasun fisiko eta morala zaintzea, jo eta besteen aurrean barregarri utzi gabe.
- Irakasleak ez du, bestetik, ikasleak ibiltzen diren lekuetan erreko.
- Gurasoekin batera lana egitea oso garrantzitsua da hezkuntza eginkizuna bete ahal izateko; gurasoekiko harremana da, beraz, irakaslearen eginbehar nagusi bat:
 - Gurasoekin elkarlan giroa sortzen saiatzea; begirunezko harremanak mantenduko ditu, beren seme-alabari buruz Klaustroak edo ikastetxeak erabakitakoa arrazoituz.
 - Bere ardurapean diren ikasleen berri ematea sistematikoki gurasoei, irakasle berak deituz, behar izanez gero.
 - Arazo larriren bat gertatuz gero, ikaslearen egoera edo gurasoekiko harremana dela eta, koordinatzaileari edo kargu orokorra duenari adieraziko dio.
 - Gurasoekiko harremana izanen da haiekin batera erabakitako orduetan; ez da klaserik utziko gurasoak artatzeko.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



o **Sariak, hutsegite eta zigorrak**

Saria eskerrona edo zorionak ofizialki adieraztea izan daiteke, omenaldia edo beste ekintzaren bat antolatzea, Ikastolan lanean 25 urte betetzean edo jubilatzean, adibidez.

o **Hutsegite eta zigorrak**

Langileen Estatutua (LE), 58. Artikulua: Hutsegiteak.

1. Ikastetxeen Lan-Ordenantza (ILO) 62. artikulua.

Hutsegiteen garrantzia, eraginen eta interesaren arabera, langile batek egiten duen hutsegiteak arinak, larriak edo oso larriak dira.

• **Hutsegite arinak**

- 30 egunen barruan, inolako justifikaziorik eman gabe, lan lekura hiru aldiz berandu iristea.
- 30 eguneko aldian, inolako justifikaziorik eman gabe, lanera egun batean ez azaltzea.
- 30 egunen barruan bi bider, inolako arrazoirik eman gabe, bukatzeko ordua jo baino lehen eskolak bukatutzat ematea.
- Bere garaian bajarik ez bidaltzea, lanera arrazoi justifikatu batez azaltzen ez denean, bidaltzeko ezintasuna frogatzen ez bada.
- Helbide-aldaketak ez adieraztea.
- Ikasleen ez etortzeak jasotzeko axolagabekeria.
- Betebeharrak ardurarik gabe edo axolagabekeriaz betetzea, horrek ikastetxearen jardunari nahiz garapenari kalte arina sortzen badio.
- Norbere buruarekiko txukuntasunik eta garbitasunik eza.
- Materialaren mantenuan axolagabekeria txikiak.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



- **Hutsegite larriak**
- Justifikatu gabe, 30 eguneko epean lanera hirutan baino gehiagotan eta hamar aldiz baino gutxiagotan berandu iristea.
- Justifikatu gabe, 30 eguneko epean lanera behin baino gehiagotan eta hirutan baino gutxiagotan ez joatea.
- Ikastetxearen diziplina akademikoa eta barruko ordenuaren aurkako ekintzak. Hutsegite oso larritzat hartuko dira zerbitzuen funtzionamendu onaren kontrako eragina badute.
- Gizarte Segurantzaren ondorioak izan ditzaketen familian gertatutako aldaketan berri bere garaian ez ematea. Oso larritzat hartuko da datuak maltzurki ezkutatzea.
- Gaixoarena egitea.
- Zerbitzuaren funtzionamendu onaren aurka eragina duen lanarekiko axolagabekeria edo zabarkeria.
- Ikasgaia ez azaltzea edota behar bezala ez.
- Aginduzko lan idatziak maiz ez egitea edo atzeratzea.
- Ikastetxearen diziplinan eragin kaltegarria duten lankideekiko eztabaidak oso larritzat hartuko dira, eskandalu nabarien jatorri badira.
- Ikasleak edo gurasoak ez artatzea, zor zaien zuzentasun eta arduraz.
- Zerbitzu-gaietan agintzea dagokionari ez betetzea oso larritzat hartuko da, diziplinaren hausketa nabaria gertatu edo ikastetxeari kalte nabarmena egin bazaio.
- Hiruhilabeteko epean hutsegite arin bat berriz egitea.
- Betebeharrak ardurarik gabe edo axolagabekeriaz betetzea, horrek ikastetxearen jardunari nahiz garapenari kalte arina sortzen badio.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



- **Hutsegite oso larriak**
- Justifikatu gabe, 30 eguneko epean lanera hamar aldiz baino gehiagotan ez joatea.
- Justifikatu gabe, 30 eguneko epean lanera hiru aldiz baino gehiagotan ez joatea.
- Bere kargura utzitako eginbehar eta gestioetan iruzurra, desleialtasuna, konfiantza-abusua eta prestutasunik eza.
- Ohituraz mozkorturik edo drogen eraginpean ibiltzea.
- Hitzetan pertsona eta horren balio eta sinisteeikiko ohiko errespetu falta nabaria.
- Lan-errendimenduan nahitako eta behin eta berrizko ahaleginik eza.
- Betebeharrak ardurarik gabe edo axolagabekeriak betetzea, horrek ikastetxearen jardunari nahiz garapenari kalte oso larria sortzen badio.
- Ikastolako karguek hartutako erabakiei errespetu falta agertzea, haien autoritate edo prestigioari kalte oso larria eginen badio.
- Ikastetxearen buru, lankide edo menpekoei –ikasleak edo haien familiakoak– hitzez nahiz ekintzez egindako tratu txarrak, autoritate-abusua edo errespetu eta begirune falta larria.
- Aurkeztu beharreko zinpeko azalpen faltsuak egitea.
- Ikastetxearen hezkuntza helburuen aurkako ekintza tendentzioso edo nabarmenak egitea.
- Ikasleei inolako diziplinarik ez jartzea.
- Lehen hutsegite larriaren ondoren, handik sei hilabetetako epean beste hutsegite larri bat egitea, beste era batekoa izan arren.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



- **Zigorrak**

Enpresei dagokie zigorrak ezartzeko ahalmena, Lan Kontratuaren Legean eta Ordenantza horretan erabakitakoaren arabera. Edozein zigor dela eta, idatziz adieraziko zaio interesatuari eta hark jaso duela adierazi edo komunikazioaren jakitun dela izenpetu behar du.

Hutsegitearen izate eta larritasuna kontuan izanik, hauek dira ezar daitezkeen zigorrik handienak:

a. **Hutsegite arinak** direnean: jakinarazpena ahoz edo idatziz edota bi egunetako lan eta soldata geraldia. Ezin da opor edo atsedeen eskubideen gutxitzea ezarri, ezta isunik ere.

b. **Hutsegite larriak** direnean: oharra idatziz emanen da. Behin eta berriz gertatuko balitz, ordea, 5-15 egun bitarteko lan eta soldata kenduko litzaioke langileari eta haren espedientean jarriko.

c. **Hutsegite oso larriak** direnean: oharra idatziz emanen zaio langileari eta 16 eta 30 egun bitarteko lan eta soldata kenduko, edota hurrengo baterako kaleratze-ohartarazpena, edota kaleratzea.

- **Hutsen preskripzioa**

Langileek egindako hutsek epe hauetan galduko dute indarra:

- ❑ **huts arinek, 10. egunean;**
- ❑ **larriek, 15.ean;**
- ❑ **oso larriek, 50.ean.**

Beti ere, enpresak hura gertatu zela jakiten duen egunetik kontatzen hasita, eta nolahi ere, okerra egindako egunetik hasi eta handik sei hilabetera.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



7.3 Gurasoen eskubide eta betebeharrak

- **Elkartearen bazkide-eskubideak**

Guraso-bazkideek gestioan dituzten eskubideak eta partaidetza bideak arautuak dira Barne Arautegi honetako I. eta III. Ataletan.

- **Seme-alaben hezkuntza dela-eta, gurasoen edo legezko tutoreen eskubideak**

Gurasoek eskola eta irakasleekiko dituzten eskubide nagusiak beren seme-alaben hezkuntzaren inguruan biltzen dira:

1.- Eskolarekiko, orokorrean

- Eskolak onartu duen Hezkuntza Proiektuaren berri jaso eta beren seme-alaba proiektu horren arabera hezia izateko. Proiektu horrek gutxienez legez xedatutako gutxiengoak hartuko ditu barruan, beste eskola batean egokitu ahal izateko edota ikasketetan ikaslearen jarraipena ziurtatzeko.
- Beren seme-alaben hezkuntzari buruzko informazioa ohituraz jasotzeko; horretarako, bilerak eta harremanetarako bitartekoak antolatuko ditu eskolak. Informazio horrek seme-alabaren ibilera akademikoa, jokabideak eta jarrerak aztertuko ditu, kontuan hartuta informatzaileak ematen dituen ebaluazioetako emaitzen balorazioak eta beste argibideak.
- Beharrezkotzat jotzen diren informazio osagarriak eskatzeko edo kexak aurkezteko.
- Irakaskuntzan ikaslearen egoera berezi posibleak bideratzeko har daitezkeen neurriak jakiteko eta erabakian parte hartzeko.
- Legez halabeharrezko ez denetan, seme-alabak ikasturtea



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



errepikatze erabakian parte hartzeko; eskolak esijitu diezaieke hartu diren erabakiaren berri ematen duen idatzia izenpetzeko, erabaki hori eskolaren ustearen aurka gurasoek berek hartua bada.

2.- Irakaslearekiko

Gurasoek irakasle bakoitzak lantzen duen gaiaren programazioa jakiteko eskubidea dute; era berean, erabiltzen diren ebaluaketa irizpideak eta beren seme-alabek lorturiko emaitzen berri jasotzeko. Ikaslearen nahiz gurasoen eskubideen aurka jokatzeko duen irakasleari buruzko kontuak eska ditzakete.

Gurasoen betebeharrak

Gurasoek, guraso bezala, honako betebeharrak dituzte:

Orokorki, beren seme-alabak hezteak exijitzen dizkien ezagutza eta elkarkidetzak Ikastolari emateko; horretarako:

- Beren seme-alabaren hezkuntzari dagokion beren egoera pertsonal, familiar edota sozialari buruzko informazioa emateko, Ikastolaren arduradunek eskatuta edota beraiek zuzenean eskainita.
- Gurasoak seme-alabaren heziketaren eragile nagusiak izanik, hezkuntza arazoak eskolako arduradunarekin zuzenean tratatzea eta ez seme-alabaren bitartekotza erabiltzeko.
- Ikastolak antolatzen dituen bilera edo elkarrizketaaldiak erabiliz tutorearekin edo aldian aldiko zerbitzu arduradunarekin hitz egitera etortzeko; are gehiago, Ikastolako arduradunak dei berezia egiten dietenean.
- Elkarrizketarako egunak, orduak eta lekuak errespetatzeko eta, batez ere, eskola-garaian gelan ez azaltzeko, lana eragotziz.
- Ikaslearen hezkuntzan eskolari laguntzeko, horrek ezarritako dauzkan hezkuntza proiektuaren helburuak lor ditzan, batez ere:
- Seme-alabak txukun eta garaiz bidaltzeko.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



- Seme-alaben bertaratze ezina edota berandutzearen arrazoiak idatziz justifikatzeko.
 - Ekintza eskolar eta osagarrietan behar duten materialaz hornitzeko eta behar bezala erabiltzen ote duen begiratzeko.
 - Ikastolako materialean, altzarietan, instalaziotan eta autobusetan nahita egindako apurketen erantzukizuna agertzeko.
 - Edonork errespetua merezi duela eta gai horri buruzko hutsune posibleei garrantzi handia emateko.
-
- **Ikastolarekiko harremanez**
 - Gurasoek edo legezko tutoreek bakarrik izanen dute ikaslearekiko informazioa jaso edota berarekiko kexa Ikastolari aurkezteko eskubidea; beste edonori, Ikastolak eskubide hori uka diezaioke, eta normalean ukatu egingen dio.
 - Kontuan izanen dituzte arauok:
 - Tutorearekiko edo pedagogi arduradunarekiko harremanak alde zuzenetik jarritako egun eta orduetan izanen dira.
 - Tutoreak deituko die, eguna eta ordua finkatuta.
 - Erabakitako egun eta orduetan etortzerik ez balego, telefonoz edo idatziz jakinaraziko zaio tutoreari eta ikustaldirako ordua jarriko dute elkarrekin.
 - Ez da inor hitz egiteko hartuko, ez telefonoz ezta aurrez aurre ere, irakaslea ikasleekin lanean ari den unean.
 - Gurasoek ezohiko bilera baten premia ikusiko balute, tutoreari jakinaraziko diote.
 - Tutoreak edo pedagogi arduradunak irakaskuntzarekin edo ikaslearen jokabidearekin zerikusirik duten arazoei buruz hitz egingen dute batez ere.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



- **Arazoak tratatzeko instantziak**

Gurasoek nahiz legezko tutoreek honako bidea eginen dute, semeari edo alabari dagokion arazo bati buruz hitz egiteko:

- Lehenengoz, arazoari konponbidea ematen saiatuko da, ikaslearen tutorearekin hitz eginda.
- Tutoreak konponduko ez balu, mailako nahiz etapako koordinatzailearekin hitz eginen dute.
- Azkenik, oraindik ere konponketarik ez balu, zuzendariarengana jo dezakete gurasoek.

- **Gurasoak eta ikastolaren zerbitzuak**

Guraso guztiek dute beren seme-alabek Ikastolaren zerbitzuak erabiltzeko eskubidea, dagozkien baldintzak betetzeko prest badaude.

- **Gurasoak eta ikastolako instalazioen erabilera**

Gurasoek erabil ditzakete Ikastolako instalazioak:

- Kanpoko kirol eta joko instalazioak, eskola denboran ez denean edota ekintza osagarrietarako behar ez direnean.
- Barruko instalazioak, zuzendariaren baimen bereziarekin:
 - a. Ikastolarekiko gaia edo ekintza garatzeko, hau da, ekintza osagarriak antolatzeko edo hezkuntzarekiko bilerak, hitzaldiak eta abar eratzeko.
 - b. Beste gaietarako, sor litezkeen gastuak bere eginik.
 - c. Errektore Batzarraren erabakiz, ez da onartuko Ikastola erabiltzea alderdi baten bilera politikoak edo sindikatu baten bilerak egiteko, ezta ekintza komertziala burutzeko ere.
 - d. Orokorrean, euskal kulturarekin edota irakaskuntzarekin zerikusia duten bilerak egitea onartuko da, kontrakorik ez badago eta sor litezkeen gastuak bere eginez gero.



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



- **Gurasoen eskola**

Arlo akademikoetatik eta eskola-ekintzetatik at dauden alderdi ugari eta garrantzizkoak ditu hezkuntzak. Horiek lantzeko, Ikastolak bultzatuko du gurasoek beraiekin eragindako jarduera bereziak antolatzea (bilerak, hitzaldiak, ikastaroak...). Jarduera horiek seme-alaben heziketari lotuak izanen dira eta aldiari aldiko edo mailaz mailako hezkuntza gaiak landuko dira.

- **Jantokiaren erabilpenaz**

Gurasoen beharrei erantzuten saiatuko gara; gauzak horrela, jantokia erabil dezakete ikasturte osoan zehar geratzen direnek —ikasturtea hasi aurretik izena eman eta ohituraz bertan janen dutenek izanen dute lehentasuna— nahiz, gurasoek halaxe eskatuta, egun jakin batean (edo batzuetan) bazkaldu nahi duenak: kasu horretan, gurasoek edo ikasleek berek utziko dute jangelako txartela idazkaritzan goizeko lehen orduan.

- Zerbitzu hori erabiltzeko jantoki-kuota ordaindu behar dute gurasoek; bera ordaindu ezean, Ikastolak zerbitzua erabiltzeko ezezkoa eman diezaioke ikasleari.

- **Garraioaren erabilpenaz**

- Garraio zerbitzua erabiltzeko eskubidea izanik, ikasturtearen hasieran autobusa eta geltokia aukera ditzake; ondoren, Ikastola saiatuko da aukera hori urtero mantentzen. Ordua nahiz geltokia aldatu nahi izanez gero, baimen berezia eskatu behar da Idazkaritzan.

Ikastolak geltoki edo linea berri bat antola dezan eska dezakete gurasoek.

- Ikasleen kopurua, ibilbideen luzera eta zailtasunak izango dira



ELKARBIZITZA PROIEKTUA

Herri Ametsa Ikastola

Guardaplata 28, 20016 Donostia

Tfn-943 39 35 20/39 24 21

Fax-943 40 40 90

herriam@ikastola.net

www.herriametsa.com



antolatzeke irizpide nagusiak Ibilbideari dagokionez, Ikastola saiatuko da konponbide egokiena antolatzen, funtzionamenduko edo auzoetako arauak oztoporik sortzen ez duten neurrian. Zerbitzuan aldaketarik egin behar bada, gurasoei alde aurretik jakinaraziko zaie. Zerbitzuaren funtzionamenduan arazoren bat baldin badago, Administrazio buruari emango diote haren berri gurasoek, gidariari zein begiraleei azaldu beharrean.

- Ikasle bakoitzari autobuseko eserleku bat jarriko zaio.
- Zerbitzu osoa ordainduko da, osoki erabili, egunero bi bidaiak egin edota jangelan geratzeagatik osoki erabiltzen ez denean.

- **Ekintza osagarrietan parte hartzeaz**

Ekintza osagarrien berri izanen dute gurasoek, eta eskubidea dute beren